

Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan

Kode alternantzia eta erregistroak

Egilea: Jon Fernandez San Martin
Tutorea: Kike Amonarriz Gorria
Hizkuntza plangintza graduondokoa (Hiznet)
2019ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Helburuak eta metodologia	4
3. Lehen inkesta: ondorioak eta hipotesiak	7
3.1. Parte hartzea	7
3.2. Lehen argazki orokorra	7
3.3. Puntuz-puntuko lehen irakurketa	8
3.3.1. Adina	8
3.3.2. Generoa	9
3.3.3. Lehen hizkuntzak	10
3.3.4. Etxeko hizkuntza	11
3.3.5. Ikaskideen arteko hizkuntza	11
3.3.6. Kaleko/kuadrillako hizkuntza	12
3.3.7. Whatsapp	12
3.3.8. Instagram	14
3.3.9. Facebook	15
3.4. Ondorioak: lehen inpresioak, hipotesiak eta zalantzak	15
4. Elkarrizketen azterketa	18
4.1. Pertzepzioa vs errealitatea	19
4.2. Sare sozialak, kale berria	20
4.3. Zeintzuk dute joera kode nahasketarako eta gaztelerarako?	20
4.4. Ingelesa, bat eta bakarra	21
5. Ondorio linguistikoak	23
5.1. Hizkuntza ukipena, kode aldaketa, transferentzia eta interferentzia	23
5.1.1. Hizkuntza txandaketa	23
5.1.2. Arrazoiak	26
5.1.3. Kalkoak	28
5.1.4. Lokailuak	31
5.2. Hizkuntzaren berrikuntzak	31
5.2.1. Laburdurak	31
5.2.2. Batuaren erabilera: noiz eta zeintzuk	35
5.3. Lexikoaren erabilera	37
5.4. Beste ezaugarri batzuk	38
5.4.1. Ortografia	38
6. Ondorio nagusiak soziolinguistikaren ikuspegitik	42
7. Bibliografia	48
8. Eranskinak	49

1. SARRERA

Hiznet Hizkuntza Plangintza graduondokoaren amaierako sakontze egitasmoa egiteko, argi neukan gazteek sare sozialetan dauzkaten hizkuntza ohiturak aztertu nahi nituela. Nagusiki, bi arrazoigatik: alde batetik, euskararen normalizaziorako interesgune garrantzitsua delako ezagutzea nerabeek zenbat erabiltzen duten euskara testuinguru informaletan eta, era berean, zer nolako euskara darabilten; eta bestetik, interesgarria delako jakitea euskal hiztun gazteek zenbateko lekua ematen dioten euskarari sare sozialen bidezko komunikazioan, zeina bihurtu baita haien eguneroko —eta ia uneroko— harreman bide nagusietako bat.

Sakelako telefonoa ezinbesteko tresna bilakatu da sozializatzeko, eta bereziki nerabeak eta gazteak baliatzen dira Internetera lotutako aplikazioez eta sare sozialez, fisikoki gertu zein urruti dauzkaten lagunekin harremanak izateko. Gazteen Euskal Behatokiaren 2016ko ikerketa baten arabera¹, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %99k erabiltzen dituzte sare sozialak, eta batez beste, gazte bakoitzak lau sare sozial erabiltzen ditu: gazteen %98k darabilte Whatsapp; %70,6k, Youtube; %70ek, Facebook; eta %48,1ek Instagram. Eguneroko komunikazio ohiturak aldatzeak, halaber, aldaketak dakartza hizkuntzen erabileran ere, eta horixe neurtu nahi izan dut.

Azterketa egiteko, neure jaioterriko institutura jo dut hango ikasleen jarduna ezagutzeko, Ondarroako Institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleengana —16 eta 19 urte bitartekoak—. Lehenik eta behin, etxean, ikasgelan eta kaleko lagunartean dauzkaten hizkuntza ohiturak aztertu ditut, eta ondoren, Whatsapp eta Instagram sare sozialetan zer hizkuntza ohitura dauzkaten behatu dut. Bi sare sozial horiek aukeratu ditut, gehien erabiltzen dituztenak direlako, alde handiz.

Lana hasi aurretik banituen hipotesi batzuk. UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Goizane Aranak eta Eneritz Albizuk 2017an aurkeztutako azterketa baten arabera², Ondarroan ezagutza eta erabilera %79koak dira, eta gazteen artean erabilera %92ra igotzen da, arau soziala, kalean, euskara delako. Beraz, euskararen erabilera handia espero nuen etxean, ikasgelan eta kaleko lagunartean; aldiz, uste nuen sare sozialetan nabarmen apalduko zela euskararen erabilera, gaztelaniaren eta, neurri batean, ingelesaren interferentzia handiagoagatik. Izan ere, kontuan izan behar da sare sozialen bidez harreman zirkulua mugagabe zabal daitekeela: izan daitezke banakako edo taldeko elkarrizketak, familia artekoak, kuadrillakoak, eskualdeko zein herri arteko lagunak, edo beste herrialde batzuetako lagunak artekoak. Inoiz baino ohikoagoak dira errealitate soziolinguistiko ezberdinetako pertsonen arteko harremanak, eta horrek kode alternantzia hauspotzen du.

Norabide bera erakusten dute, halaber, ikasturtean zehar sakontze egitasmorako oinarri teorikoa osatzeko asmoz irakurritako erreferente nagusiek ere: kode alternantzia nagusitzen ari da sare sozialetan, eta ez bakarrik gazteen artean, ezta ere bakarrik euskal komunitateko kideen artean; hizkuntza nahasketa joera globala da sareko komunikazioan zein aurrez aurrekoan. Hala argudiatu dute David Crystal³ eta Orreaga Ibarra Murillo⁴ linguistek hainbat liburutan.

Sakontze egitasmo hau egin ahal izateko ezinbesteko bidelagun eta gidari izan ditut Ondarroako Institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak, Bakarne Aretxabaleta Bedialauneta institutuko euskara irakaslea eta Kike Amonarriz Gorria tutorea. Eskerrik asko denoi.

1 *Euskadiko gazteak sare sozialetan*, Gazteen Euskal Behatokia (2016ko urria)

2 *Bermeo eta Ondarroa, hizkuntza garapenean eragriten duten faktoreak*, Goizane Arana eta Eneritz Albizu (UEMA, 2017)

3 *El lenguaje e Internet*, David Crystal (Cambridge University Press, 2002); *Txtng. The gr8 db8*, David Crystal (Oxford University Press, 2008); *Internet linguistics*, David Crystal (Routledge, 2011)

4 *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*, Orreaga Ibarra Murillo (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2011); *El euskera de ayer y de hoy: variación y contacto*, Orreaga Ibarra Murillo (Pamiela, 2018)

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Sakontze egitasmo honetan bi helburu zehaztu ditut hasieratik: lehenengoa izan da euskararen erabileraren dimentsioa neurtzea aukeratutako erabilera eremuetan —nagusiki Whatsapp eta Instagram sare sozialetan, baina baita ere etxean, ikasgelan eta kaleko lagunartean—; neurketa horrekin batera, bigarren helburua izan da erreparatzea ea zenbaterainokoa den kode alternantzia, zein hizkuntza erregistro erabiltzen dituzten eta zelako idazkera darabilten.

Bi helburu horiek lortzeko, honako metodologia hau erabili dut:

Lagina aukeratzeko Ondarroako Institutura jo nuen, bi arrazoigatik: alde batetik, herria euskararen arnagune bat delako —8.397 biztanle zituen 2018an, INEren arabera—, eta interesatzen zitzaidalako jakitea euskararen kaleko erabilera hain handia den herri batean zelakoa den erabilera sare sozialetan; beste aldetik, laginaren potentzialitateagatik, Ondarroan adin horretan —batxilergoan, 16-18 urte bitartean— dagoen hezkuntza zentro bakarra delako. Ondorio estatistikoen *Parte hartzea* atalean (3.1.1. puntua) hobeto azalduko dudan bezala, 2018-2019 ikasturtean 79 ikasle egon dira matrikulatuta batxilergoko 1. eta 2. mailetan; horietatik 72k parte hartu dute soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa neurtzeko pausoa (lagin osoa), eta 50ek sare sozialetako jardunarenean (lagin hautatua).

Ez dira 16-18 urte bitarteko Ondarroako gazte guztiak, baina adin horretan herrian batxilergoa ikasten ari diren guztiak zentro horretan dabilzanak dira. Ideia bat egiteko, Eustaten arabera 2001ean eta 2002an Ondarroan bizirik jaiotako 134 pertsonen %47,7k hartu dute parte lagin osoan; horiez gain, 19 urteko beste ikasle ondarroar bat ere badago laginean, eta Markina-Xemeingo beste zazpi ikasle —16 urteko bat, 17 urteko bost, eta 18 urteko bat—.

Ikasleek euren borondatez hartu dute parte sakontze egitasmoaren ikerketa soziolinguistikoan, eta euren datuen anonimotasuna eta segurtasuna bermatzeko, baimen bat sinatu zuten, 2016ko DBEO Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean oinarritutakoa⁵. Gainera, anonimotasuna ziurtatzeko, elkarrizketetako izen-abizen guztiak ezabatu ditut, eta horien ordez izen berberak erabili dut kasu guztietarako: Maite eta Mikel.

Behin baimena sinatuta, ikasleek *Soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa*⁶ deitutako fitxa bana bete zuten (1. fitxa). Fitxa horren helburua zen ikasleen testuinguru soziolinguistikoa ezagutzea. Bakoitzaren adina eta generoa jasotzeaz gain, jaso nuen ea zein zen bakoitzaren lehen hizkuntza —hiru urte bete arte jasotako hizkuntza—, etxean gehien erabiltzen duten hizkuntza —edo hizkuntzak—, institutuan ikaskideekin gehien erabiltzen dutena eta kalean/kuadrillan gehien erabiltzen dutena.

Horrez gain, galdetu nien ea zein sare sozial erabiltzen duten gehien eta ea nagusiki zein hizkuntzatan aritzen diren. Euskararen kasuan, zehaztaper bat egiteko ere eskatu nien: ea euskara batua ala herriko hizkera erabiltzen duten —kasu honetan, ondarrutarra edo markinarra—.

Fitxak bete eta jaso eta gero, ikasleei eskatu nien Whatsapp, Instagram eta Facebook sare sozialetan izandako jardunaren pantaila-argazkiak ateratzeko eta posta elektronikoko bidez neuri bidaltzeko. Azterketa egiteko corpus nahikoa izateko baina bolumen handiegia ere ez pilatzeko, erabaki nuen bi egunetako jarduna bidaltzeko eskatzea: astegun batekoa —asteazken bat— eta asteburuko egun batekoa —larunbat bat—. Hartara, aukera handiagoa izango nuen soslai ezberdinetako pertsonekin eta taldeekin izandako elkarrizketak jasotzeko: aste barruan hezkuntzari eta eskolaz kanpoko jardueri lotutakoak batez ere—kirola, dantza, musika...—; asteburuan, berriz, aisialdiari lotutakoak.

5 Ikasleek sinatutako baimenaren eredia *Eranskinak* atalean ikus daiteke.

6 Ikasleek betetako *Soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa* fitxaren eredia *Eranskinak* atalean ikus daiteke.

Lagina kutsa zezakeen faktore bat saihestu nahi nuen, Orreaga Ibarrek *El euskera de ayer y de hoy: variación y contacto* (Pamiela, 2018) liburuan aipatzen duen *behatzailearen paradoxa*, eta, horregatik, abenduko bi eguneko jarduna bidaltzeko eskatu nien ikasleei: abenduaren 19koa (eguztana) eta abenduaren 22koa (zapatua).

Otsailaren erdialdean jarri nintzen harremanetan ikasleekin, beraz, ia bi hilabete lehenagoko jarduna aukeratu nuen, *behatzailearen paradoxa* ez gertatzeko. Izan ere, Orreagak esplikatzen duen moduan, frogatuta dago hiztun batek badakienean norbait haren produkzio linguistikoa aztertzen ari dela, ohi baino gehiago zaintzen duela produkzioa, eta ez duela berba egiten —edo idazten— normalean eta testuinguru informal batean egiten duen bezala.

Gainera, berariaz aukeratu nuen aste hori, Ondarroan gazteek ohitura dutelako Gabon egunaren aurreko zapatuan kuadrillako bazkariak eta afariak antolatzeko: kale giro eta parranda giro berezia egoten da zapatu horretan (abenduaren 22a, iaz), eta pentsatu nuen egun horrek eta egun horretarako prestaketak eragingo zuela sare sozialetan ere elkarriketen jariora handitzea.

Alabaina, ikasle batzuek otsailerako ezabatuta zeuzkaten abenduko hizketaldiak, eta beste data batzuetakoak bidali zizkidaten: abenduaren 12koak (ikasle batek); abenduaren 26koak (ikasle batek); abenduaren 27koak (ikasle batek); urtarrilaren 12koak eta urtarrilaren 19koak (ikasle batek); urtarrilaren 16koak (ikasle batek); otsailaren 20koak eta 23koak (ikasle batek); eta otsailaren 21ekoak (ikasle batek). Egotekotan, otsaileko hizketaldiak bidali dituzten bi ikasle horien jarduna egon daiteke behatzaileak kutsatuta, baina gainerako ikasleen jardunarekin konparatuta, ez dauka kutsadura zantzu agerikorik.

Pantaila-argazkietan jasotako hizketaldi bakoitzarekin batera, hari lotutako *Elkarrizketaren testuingurua*⁷ izeneko fitxa bidali zidaten (2. fitxa). Fitxa horrek informazio garrantzitsua eman dezake hobeto ulertzeko zer garrantzia daukaten berbalagunen soslaiek hizkuntza ohitura batzuk ala beste batzuk aukeratzeko garaian. Fitxa horretan hizketaldiko parte hartzaileen informazio hau jasotzen da: elkarrizketa biren artekoa ala taldekoa den; berbalagunaren/berbalagunen adina eta generoa; berbalagunaren hizkuntza gaitasuna —euskalduna ala euskaraz ez ote den ondo moldatzen, eta hala bada, zein hizkuntza darabilen— eta taldekideen arteko ohiko hizkuntza; ikaslearen eta berbalagunaren/berbalagunen arteko harreman mota —lagunartekoa, ikaskidea, familiakoa, bikotekidea edo besterik—; eta, azkenik, berbalagunaren/berbalagunen bizitokia —Ondarroa, eskualdea (Markina-Xemein den kasuetan, hala zehaztu dute) ala eskualdetik kanpokoa (nongoa den zehaztuta)—.

Denera 224 hizketaldi bidali dizkidate 50 ikaslek: horixe da sakontze egitasmoan aztertu dudana corpusa. Azterketa egin ahal izateko, hizketaldi guztiak transkribatu ditut, eta excell koadro batean txertatu ditut elkarrizketa guztiak, bakoitzari dagokion informazio osagarriarekin batera, *Elkarrizketaren testuingurua* fitxan jasotako aldagai guztiekin. Aldagai guztiak excel programan jasotzeak asko erraztu dit lana aldagai jakinen gaineko irakurketak bizkorrago egin ahal izateko, eta datu estadistikoak ateratzeko.

Horrez gain, corpusaren azterketa linguistikoa egin ahal izateko, beste excel bat osatu dut, 224 hizketaldietako ekoizpena galbahetik pasatzeko eta hasieran aipatutako bi helburu nagusiak neurtu ahal izateko: euskararen erabileraren dimentsioa, alde batetik; eta kode alternantzia, erregistroa eta idazkera moldea bestetik.

Lehen helburua betetzeko, 224 elkarrizketak bi taulatan banatu ditut: batean, hizkuntza bakarrean egindako elkarrizketak jaso ditut —euskara, gaztelania edo besterik—; bestean, kode nahasketa daukaten elkarrizketak jaso ditut, zehaztuta zein den hizkuntza nagusia. Hizkuntza bakarrean egindako elkarrizketen taulan sartutakoen artean beste hizkuntzaren/hizkuntzen presentzia %20tik beherakoa da. Aldiz, kode nahasketaren taulan dauden elkarrizketetan, beste hizkuntzaren/hizkuntzen presentzia %20tik gorakoa da.

⁷ Ikasleek pantaila-argazki bidez jasotako hizketaldi bakoitzaren inguruan betetako *Elkarrizketaren testuingurua* fitxaren eredia *Eranskinak* atalean ikus daiteke.

Corpusaren gaineko azterketa egiteko eta ondorioak ateratzeko, marko teoriko gisa, nagusiki *Sarrera*-n aipatutako bi linguisten lanak erabili ditut: David Crystalenak eta Orreaga Ibarrenak. Era berean, baliagarriak izan zaizkit Hiznet graduondokoaren 2018-2019 ikasturtean landutako ikasgaietan ezagututako beste hainbat erreferentzia ere. Erreferentzia eta iturri guztiak jasota geratuko dira *Bibliografia*-ren atalean.

3. LEHEN INKESTA: ONDORIOAK ETA HIPOTESIAK

3.1. Parte hartzea

Ondarroako BHI Institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailetan 79 ikasle daude guztira. Horietatik 72k bete dute lehen fitxa (*Soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa*). Beraz, parte hartzea **%91,1**koa izan da lehenengo pausoa. Aurrerantzean *Lagin osoa* deituko diot horri.

Bigarren pausoa, ostera, apaldu egin da parte hartzea. 50 ikaslek bidali dituzte eskatutako sare sozialetako elkarrizketen argazkiak: lagin osoaren (72 ikasleen) **%69,4**k, beraz. Aurrerantzean *Lagin hautatua* deituko diot horri.

Jatorrizko lagin potentziala (79 ikasle) kontuan hartuz gero, lagin hautatuaren pisua **%63,3**koa izango litzateke.

3.2. Lehen argazki orokorra


Lehen inkestan jasotako erantzunak zenbaki bihurtuz gero, lehen ondorioa argia da: euskara nagusi da erabilera eremu guztietan.

Baina bi joera bereizten dira: batetik, erabatekoa da euskararen nagusitasuna ikaskideen artean eta kaleko giroan (arau soziala da); bestetik, ostera, euskaren erabilera apaldu egiten da sare sozialetan, eta euskara+gaztelaren (*Biak**, grafikoetan) erabilera handitu.


Halaber, argi geratu da ia inork ez darabilela Facebook.

Bi laginetan bertsuak dira erabilera-joera nagusien proportzioak. Beraz, badago oinarria esateko azterketa honetatik ateratako ondorioak aplikagarriak zaizkiola unibertso osoari, akats tarte handirik gabe. Unibertso osoa esanda, zera esan nahi dut: Ondarroan ikasten duten 16-18 urte bitarteko nerabe guztiak:

Lagin osoa (72): hizkuntzen erabilera



Lagin hautatua (50): hizkuntzen erabilera




3.3. Puntuz-puntu lehen irakurketa

Ondorengo puntuetan lehenengo fitxan jasotako datuen irakurketa egingo dut atalez atal: lehen inpresioak eta hipotesiak izango dira. Lehen irakurketa hau egin dut oraindik lagin hautatuak bidalitako sare sozialetako elkarrizketen corpusa aztertu gabe. Behin corpus hori transkribatu, ordenatu eta aztertutakoan, orain egindako **irakurketak eta hipotesiak** berretsi edo moldatu egin daitezke. Gerta daiteke, baita ere, hipotesiok bertan behera geratzea; ikusiko dugu.

Lehen irakurketa hau egiteko, **bi laginak** hartuko ditut kontuan: lagin osoa eta lagin hautatua. Bataren eta bestearen datuetatik sortutako infografiak erabiliko ditut datuak irudikatze eta konparazioak egiteko.


3.3.1. Adina



Ez dago distortsio handirik lagin osoaren (ezkerrekoa) eta hautatuaren artean. Esan dezakegu, hori bai, lagin hautatua 17 urtekoek berez daukatena baino pisu handiagoa hartuko dutela.

3.3.2. Generoa

Lagin hautatuan mantendu egin da genero arteko proportzioa: **hamarretik zazpi neskek** dira; hiru, aldiz, mutilak.




Genero ikuspegitik erreparatuta, **ez dago alde nabarmenik hizkuntza erabilerari dagokionez**: ez lagin nagusian, ez lagin hautatuan. Lagin osoan mutilek euskara pixka bat gehiago darabilte Whatsappen (%76-%65); mutilek, ordea, neskek baino pixka bat gutxiago darabilte euskara Instagramen (%65-%76).

Bestalde, oso neska gutxi erabiltzen dute Facebook, eta mutilen artean inork ere ez.

Era berean, aipatzekoa da nesken artean **aberastasun handiagoa** dagoela lehen hizkuntzan.


Lagin OSOA

Neskak (51): hizkuntzen erabilera



Lagin OSOA


Mutilak (21): hizkuntzen erabilera



Lagin hautatuan ere antzekoak dira joerak:

Lagin HAUTATUA

Nesakak (35): hizkuntzen erabilera




3.3.3. Lehen hizkuntzak

Soslai linguistiko bakar bat desagertuko da lagin hautatuan: lehen hizkuntza bakarra gaztelera duten ikasleena (2 dira), ez dutelako parte hartu lagin hautatuan. Ezingo dugu ziurtatu horiek zein hizkuntza ohitura darabilten sare sozialetan (ziurtatu ez, baina ezagutu dezakegu, lehen fitxan adierazi baitituzte euren hizkuntza ohiturak).


Gainontzean, beste hizkuntza soslaien proportzioak mantendu egiten dira lagin hautatuan.

Lehen hizkuntza



Lagin OSOA

Lehen hizkuntza



Lagin HAUTATUA


3.3.4. Etxeko hizkuntza

Hamar ikasletik zortzik euskara dute etxeko hizkuntza: ez dago ia aldaketarik bi laginen artean. Gainontzeko etxeko hizkuntzen proportzioak ere ia berdin mantendu egin dira (gaztelera; biak; gaztelera+portugesesa; portugesesa).

Aipatzekoa da euskarak **presentzia handiagoa duela etxeko hizkuntzan lehen hizkuntzan baino**: zortzi puntu gehiago. Hau da, lehen hizkuntza euskara hutsa ez duten batzuk ere etxean nagusiki euskaraz bizi dira.


Badago hemen ondorio aipagarri bat: kalean arau soziala euskara bada, eta arau sozial hori indartsua, bizia, erabilgarria eta erakargarria baldin bada —eta Ondarroan hala da—, etxera ere sar daiteke arau hori, etxean ere euskararen erabilera handituz.

Etxeko hizkuntza



Lagin OSOA

Etxeko hizkuntza




Lagin HAUTATUA

3.3.5. Ikaskideen arteko hizkuntza


Euskara da arau soziala etxetik kanpo, argi eta garbi: bai eskolan (%98-%99), ikaskideen artean, eta baita ere kalean/kuadrillan, hurrengo puntuan ikusiko dugunez.

Ikaskideen arteko hizkuntza



Lagin OSOA

Ikaskideen arteko hizkuntza




Lagin HAUTATUA

3.3.6. Kaleko/kuadrillako hizkuntza


Kalean eta kuadrillan ere bakarrik euskaraz edo nagusiki euskaraz egiten dute hamarretik bederatzik. Oso gutxi dira kalean gaztelera edo euskaraz+gaztelera bizi direnak, eta proportzioa mantendu egin da, gutxi gorabehera, lagin osotik hautatura: %7-%6 dira.

Kaleko/kuadrillako hizkuntza



Lagin OSOA

Kaleko/kuadrillako hizkuntza




Lagin HAUTATUA

3.3.7. Whatsapp

Erabilera oso handia dauka sare sozial honek: **ikasle guztiak erabiltzen dute**. Lagin osoan, %97k dezent erabiltzen dute, eta %3k gutxi. Lagin hautatuan, berdintsu: %98k dezent erabiltzen dute, eta %2k gutxi.


-Hizkuntza:

Whatsapp: hizkuntza



Lagin OSOA

Whatsapp: hizkuntza



Lagin HAUTATUA

Ñabardura batzuk galdu ditugu lagin osotik hautatura, Whatsappen erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez: gaztelera hutsa (pertsona bakarra) eta euskara+portugesesa (pertsona bakarra) darabiltenek ez dute parte hartu lagin hautatuan.

Argi dagoena da gehiengoak euskara darabilela (%68) Whatsappen. Hala ere, kaleko erabilerarekin konparatuz, Whatsappen **euskara hutsaren erabilera 26 puntu apaldu da** (lagin hautatua hartu dut erreferentziatzat, baina bi laginetan berdintsua da jaitciera): %94tik %68ra.

Era berean, euskara+gaztelararen erabilera konbinatua (biak berdintsu) esponentzialki handitu da kale erabileratik Whatsappetara: %2tik %26ra, 24 puntu igoz. Aldiz, **inor ez dabil gaztelera hutsez** Whatsappen (bakarra zebilen lagin osoan).

-Hizkera:

Whatsapp: hizkuntza



Lagin OSOA

Whatsap: hizkuntza



Lagin HAUTATUA

Hizkerari dagokionez, ondorio argi bat atera daiteke lehen begi kolpean: **inork ez darabil euskara batua**. Ikusi behar da horrek zer esan nahi duen: erregistro eskasia, Whatsappari ez diotela formaltasunik aitortzen (edozein delarik ere solaskidea)... Corpora aztertzerakoan erreparatu beharko da ea gaztelera estandarra darabilten ala ez, eta euskaraz ea estandarretik jasotako formak eta lexikoak erabiltzen dituzten, nahiz eta eurak ez jabetu (adibide: korrika, aringaingaren orde, eta abar).

Ikasle gehienek **herriko hizkera** erabiltzen dute: ondarrutarra eta markinarra.

3.3.8. Instagram

Erabilera oso handia dauka sare sozial honek ere, baina Whatsapp baino pixka bat gutxiago. Lagin osoan, %3k bakarrik ez dute erabiltzen Instagram, eta lagin hautatuan %4k. Bi laginetan %90ek dezente erabiltzen dute, eta gutxi, aldiz, %7k lagin osoan eta %6k hautatuan.

-Hizkuntza:


Ñabardura bat galdu dugu lagin osotik hautatura, Instagramen erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez: euskara+portugesesa (pertsona bakarra) darabilenak ez du parte hartu lagin hautatuan.

Euskararen erabilera Whatsappen baino handiagoa da Instagramen: **5 puntu handiagoa** lagin bietan (%73 dabilta euskara hutsez Instagramen; aldiz, %68 Whatsappen).

Era berean, euskara+gaztelaren erabilera konbinatua (biak berdintsu) Whatsappen baino apalagoa da: 3 puntu jaitsi da lagin hautatuan (%22tik %19ra), eta 2 puntu lagin osoan (%21tik %19ra). Aldiz, Whatsappen ez bezala, Instagramen badabil pertsona bat (%2) gaztelera hutsez (2 pertsona, lagin osoan; bakarra, lagin hautatuan).


Soslai berri bi ere agertu zaizkigu: **euskara+beste** egiten duena (pertsona bakarra), eta gaztelera+portugesesa egiten duena (pertsona bakarra). Interesgarria egin zait euskara+beste hori, batetik gaztelaririk ez darabilelako, eta bestetik ez duelako zehaztu zein den beste hizkuntza hori: ingelesa izan daiteke edo besteren bat. Deigarria da, gainera, bera delako bakarra euskaraz bi erregistro erabiltzen dituela dioena: **ondarrutarra eta batua** (hurrengo puntuko 'hizkera' infografietan ikus daiteke).

Instagram: hizkuntza



Lagin OSOA

Instagram: hizkuntza



Lagin HAUTATUA

-Hizkera:

Whatsappen kasuan bezala, **tokiko hizkerak dira nagusi**: batez ere ondarrutarra, eta Markinakoen kasuan, markinarra. Aurreko puntuan esan bezala, ea batua darabilenak corpusean ere erabili duen, eta ea zer testuingurutan eta zelako solaskidearekin erabiltzen duen.

Instagram: hizkuntza


HIZKERA



Lagin OSOA

Instagram: hizkuntza

HIZKERA



Lagin HAUTATUA

3.3.9. Facebook

Sare sozial hau **ia inork ez du erabiltzen**. Lagin hautatuan, %90ek ez daukate konturik Facebooken; %8k bai, baina begiratzeko erabiltzen dute bakarrik, gainontzeko jendeak zer jarri duen ikusteko, eta euren ez dute ezer idazten bertan. Beraz, %2k baino ez dute erabiltzen Facebook: hau da, pertsona bakar batek. Lagin osoan ere %3 dira bakarrik Facebook darabiltenak (bi pertsona, denera).

Lagin hautatuan, bost pertsonak erantzun duten Facebookeko hizkuntza erabilerari buruz: aktibo bakarrik, eta gutxi erabiltzen dutenetako lauk. %60k (hiru pertsonak) euskara (ondarrutarra) erabiltzen dute; %20k (pertsona bakarra) euskara(ondarrutarra)+gaztelera; eta %20k (pertsona bakarra) gaztelera+portugesas.

3.4. Ondorioak: lehen inpresioak, hipotesiak eta zalantzak

Lehen fitxan jasotako erantzunei lehenengo orraztaldea egin eta gero, gogora ekarri nahi ditut zeintzuk diren Sakontze Egitasmo honen bi helburu nagusiak: euskararen erabileraren dimentsioa

neurtzea erabilera eremuan; eta, horrekin batera, kode alternantziari, hizkuntza erregistroari eta idazkerari erreparatzea .

Halaber, aipatu behar da lehen fitxan jasotako erantzunek ez dituztela egitateak ordezkatzeko, baizik eta euren buruarekiko daukaten irudia. Corpora aztertu eta gero ikusiko dugu ikasleen pertzepzioa eta jarduna bat ote datozen.


Hona hemen sortu zaizkidan zalantza, hipotesi eta ondorio nagusiak, puntu-puntu:

- Euskararen dimentsioa: Euskara da nagusi arlo guztietan, modu nabarian. Bereziki gora egiten du euskarak ikasgelan eta kalean: argi dago herrian euskara dela arau soziala.
- Euskararen dimentsioa sare sozialetan: Euskara nagusi da Whatsappen eta Instagramen, baina kalean eta ikasgelan baino indar txikiagoa dauka. Zergatik? Herriko/hurbileko zirkuluetatik kanpoko jendearekin dutelako harremana? Ala, beharbada, idatzizkoa denez, kode alternantziaren kontzientzia handiagoa daukate, eta horregatik esaten dute bi hizkuntzatan dabilzala sare sozialetan?
- Whatsappen euskara hutsaren erabilera 26 puntu apaldu da lagin hautatuan: %94tik %68ra.
- Zeintzuk dira gelan/kalean euskara darabiltenak eta, gero, Whatsappen biak (euskara+gaztelera) edo beste hizkuntza batzuk?
 - Nagusiki lehen hizkuntza bat baino gehiago dituztenak dira. Lagin hautatuan, lehen hizkuntzatzat euskara hutsa ez daukatenen %21k bakarrik idazten du nagusiki euskaraz edo euskara hutsez Whatsapen (hiru pertsonak). Lehen hizkuntzatzat euskara hutsa ez daukatenen %79k Whatsappen bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen dituzte.
 - Whatsappen euskaraz bakarrik edo nagusiki idazten ez dutenen artean bakarrik %31k dute lehen hizkuntza bakarra euskara. Hau da, eleanitz idazten dabilzananen %69ren lehen hizkuntza hutsa ez da euskara.
- Ingelesik ez da ageri, eta harritu nau pixka bat. Bakarrik bi pertsonak jarri dute “beste” hizkuntza bat erabiltzen dutela: batek Whatsappen, besteak Instagramen. Bi kasuetan ez dute zehaztu ingelesa denik beste hizkuntza hori.
- Fitxategian ez dago jakiterik ezer kode alternantziari buruz, baina aurreko puntuari jarraituz, izan daiteke uste dutena baino ingeles gehiago erabiltzea: hitz solteak, esapideak... Bi ikaslek aurrez-aurrekoan komentatu zidaten ingelesezko berba eta aditz batzuk erabiltzen dituztela sarri, bideojokoetatik hartuta (rideatu, gangeatu...). Ea agertzen diren corpusean.
- Uste nuen joera nagusia hizkuntza nahasketa izango zela sare sozialetan, baina nagusiki euskararen erabilera gailentzen da. Hori bai, Whatsappen bakar bat ere ez dabil gaztelera hutsean.
- Euskara baturik ere ez darabil ia inork. Uste izan gabe beharbada erabiliko dituzte gero batutik xurgatutako formak eta lexikoa. Baturik ezak galdera bat dakar: erregistro gabezia

daukate? Bakarrik herriko/hurbileko jendearekin daukate harremana sare sozialetan? Forma jasoagoek/formalagoek/estandarragoek ez daukate lekurik sare sozialetan?

4. ELKARRIZKETEN AZTERKETA

50 ikaslek bidalitako 224 elkarrizketak aztertu eta gero, honakoak dira emaitza nagusiak:



-Euskaraz dira **186 elkarrizketa** (%83,03).

-Nagusiki euskaraz dira **5 hizketaldi** (%2,23).

-Gazteleraz dira **29 hizketaldi** (%12,95).

-Nagusiki gazteleraz, **3 elkarrizketa** (%1,34).


-Ingelesez, elkarrizketa **bakarra** (%0,45).

Laburbilduz:

-Euskaraz edo nagusiki euskaraz dira **191 elkarrizketa**, **%85,26**.

-Gazteleraz edo nagusiki gazteleraz dira **32 elkarrizketa**, **%14,28**.

-Ingelesez elkarrizketa bakarra dago, **%0,45**.




Corpusaren azterketatik ateratako zenbakiak erakusten dute euskararen erabilera handia dela sare sozialetan: hamar elkarrizketatik zortzi pasatxo euskara hutsez dira, eta hamarretik zortzi eta erdi euskaraz edo nagusiki euskaraz.

4.1. Pertzepzioa vs errealitatea


Hain zuzen ere, sare sozialetan euskararen erabilera hain handia izateak beste ondorio bat uzten du agerian: ez datoz bat Ondarroako institutuko nerabeen pertzepzioa eta errealitatea. Corpora elikatu duten 50 ikasleek osatutako lagin hautatuan zioten euskararen erabilera %68koa zutela Whatsappen eta %73koa Instagramen; aldiz, errealitatean, Whatsappen %83,41koa da euskararen erabilera eta Instagramen %78,95ekoa —euskara eta nagusiki euskara kontuan hartuta, %84,88koa eta %89,47koa, hurrenez hurren—.

Hona hemen sare sozial bakoitzeko emaitzak:


Whatsappeko elkarrizketak: hizkuntzak




Whatsappeko elkarrizketak: hizkuntzak



Instagrameko elkarrizketak: hizkuntzak



Instagrameko elkarrizketak: hizkuntzak



Datuek erakusten dute erabileraren jaitsiera kaletik sare sozialetara ez dela, ikasleek 1. fitxan esan zuten bezala, 26 puntukoa Whatsappen eta 21 puntukoa Instagramen. Errealitatean, euskara hutsezko elkarrizketen erabileraren jaitsiera kaletik sare sozialetara ez da hain handia, baizik eta 10,59 puntukoa Whatsappen, %94tik %83,41era; eta 15,05 puntukoa Instagramen, %94tik %78,95era.

Edozelan ere, euskara hutsezko elkarrizketak eta nagusiki euskarazkoak batuz gero, erabileraren jaitsiera txikiagoa da: Whatsappen euskararen erabilera kalean baino 9,12 puntu txikiagoa da, eta Instagramen 4,53 puntu txikiagoa. Euskararen kaleko erreferentzia bezala euskara hutsezko datua hartu dut kontuan (%94), eta ez diot gehitu *biak berdintsu* aldaeraren gainerako %2a, ez delako *nagusiki euskaraz* aldaeraren parekoa.

Irakurketa globalago bat ere egin daiteke, Whatsappeko eta Instagrameko datuak batuta. Horrela, esan daiteke sare sozialetan euskara hutsezko elkarrizketak direla %83,04, kalean baino 10,96 puntu gutxiago. Euskara hutsezko eta nagusiki euskarazko elkarrizketak batuta, berriz, erabilera %85,27koa da sare sozialetan, kalean baino 8,73 puntu gutxiago.

Euskararen erabileraren autopertzepzioa eta errealitatea bat ez etortzeak hainbat irakurketa izan ditzake: besteak beste, autoestimu linguistiko txikia, hiperzuzentasunaren presioa, eta ahozkoaren eta idatzizkoaren kontzientzia ezberdina. Irakurketa horiek guztiak *Irakurketa soziolinguistikoa* atalean egingo ditut (5. puntua).

4.2. Sare sozialak, kale berria

UEMAko Goizane Aranak eta Eneritz Albizuk egindako azterketak erakusten du Ondarroan arau soziala euskara dela. Hori dela eta, euskararen kaleko erabilera handiagoa da etxeko erabilera baino. Bada, institutuko ikasleen Whatsappeko eta Instagrameko jarduna ikertu eta gero, esan daiteke sare sozialak kale berria direla, eta, gaur-gaurkoz, esparru horretan ere euskararen aldeko arau sozialari eusten zaiola, nahiz eta kale fisikoan baino indar txikixeagoarekin. Izan ere, Ondarroako institutuko nerabeen artean euskararen erabilera 5,27 puntu handiagoa da sare sozialetan etxean baino.

Badago gako garrantzitsu bat azaltzen duena zergatik eusten dion euskararen arau sozialak sare sozialetan: harreman zirkuluak ez dira asko zabaldu sare sozialetan. Hau da, elkarrizketen %10,26tan baino ez dira berbalagunak —taldekoak zein bakarkakoak— Lea-Artibai eta Mutriku eskualdetik kanpokoak.

Kanpoko berbalagunekin izandako 23 elkarrizketetan —corpusaren %10,26—, aldiz, erralitate linguistikoa goitik behera aldatzen da. Gaztelaniaren erabilera da nagusi (%65,4; 15 elkarrizketa); nagusiki gaztelera darabilte %4,34k (elkarrizketa bakarra); ingelesa, %4,34k (elkarrizketa bakarra); eta euskara darabilte %21,73k (bost elkarrizketa).

Baliteke adina aldagai gakoa izatea sare sozialetako harreman zirkuluak eskualdetik kanpora asko ez zabaltzeko. Ziurrenik, behin batxilergoa amaituta, unibertsitatera edo lan mundura —eskualdetik kanpora joaten direnen kasuan— salto egiten dutenean aldatu eta zabaldu egingo dira ikasle horien sare sozialetako harreman zirkuluak eta, ondorioz, baita hizkuntzen erabilera ere.

4.3. Zeintzuk dute joera kode nahasketarako eta gaztelerarako?

Bi sare sozialetan lau ikaslek egin dute **nagusiki euskaraz** eta ez euskara hutsez; laurak neskak dira, eta laurak euskara dute lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza, eskolako eta kalekoa. Kode nahasketa darabilte euskararen eta gaztelaniaren artean: gaztelaniak presentzia nabarmena du euren elkarrizketetan (%20tik gora), baina, hala ere, euskarak du nagusitasuna. Bost elkarrizketatik hiru

lagunartekoak dira, eta bi ikaskideen artekoak; lau taldeko elkarriketak dira eta bat bakarkakoa. Herrikoak eta eskualdekoak dira denak, beraz, badirudi berbalagunaren soslai soziolinguistikoa ez dela kode nahasketa bultzatzen duena, ezpada talde izaera indartzeko eta transgresiorako nahia.

Bestalde, bi ikaslek egin dituzte hiru elkarriketa **nagusiki gazteleraz**: bi ikasleak mutilak dira, eta bi-biak elebidunak dira jaiotzez: hau da, euren lehen hizkuntzak euskara eta gaztelania dira; batek biak erabiltzen ditu etxean, eta besteak gaztelania; biek euskara darabilte eskolan ikaskideekin, eta batek kaleko lagunekin euskara badarabil ere, besteak berdintsu erabiltzen ditu euskara eta gaztelania.

Hamahiru ikaslek izan dituzte **gaztelera hutsezko** elkarriketak (29 elkarriketa). Zer soslai soziolinguistikoa daukate gaztelaniarako joera duten ikasle horiek? Bada, %69,22k ez daukate euskara hutsa euren lehen hizkuntzatzat. Zehatzago esateko, elkarriketetan gaztelera darabiltenen %61,53k (zortzi ikaslek) euskara eta gaztelania dituzte lehen hizkuntzatzat, eta %7,69k (ikasle bakarrak) gaztelera eta portugesa. Sare sozialetan gaztelera darabilten %30,76k —lau ikaslek— daukate euskara hutsa lehen hizkuntzatzat.

Honako hau da lau gazte horien erabilera: lehenengoak, Leongo lagun batekin egin du gazteleraz; bigarrenak kanpoko baten mezua jaso du gazteleraz, baina berak ez du erantzun; hirugarrenak familiako kide batekin egin du gazteleraz —senidea ez da ondo moldatzen euskaraz—; eta laugarrenak Athletickeko gazteen futbol taldeko Whatsapppean egin du gazteleraz, non lagunaren artean gehienak Bilbo ingurukoak baitira. Lau kasuetan kanpoko faktoreek eragin dute gazteleraren erabilera.

Agerian geratzen da, beraz, erdararen presentziaren eragile nagusia *kanpoko berbalagunak* direla, euskaraz ez dakitenak edo egiten ez dutenak. Ondorioz, euskararen kaleko erabilera eta sare sozialetakoa konparatzen ditugunean, kontuan izan behar dugu ezinezkoa dela bi esparruen arteko konparaketa mimetikoa egitea; izan ere, bi espazio eta bi harreman-esparru oso desberdin dira.

Euskara hutsezko elkarriketak 186 izan dira, eta 48 ikaslek egin dituzte. Talde horren barruan interesgarria iruditzen zait erreparatzea zenbat diren lehen hizkuntza euskara hutsa ez dutenak baina sare sozialetan euskara darabiltenak.

Lagin hautatuan hamalau pertsonak ez daukate euskara hutsa lehen hizkuntzatzat: gaztelera+euskara dute 11 ikaslek; arabiera, batek; portugesa, beste batek; eta gaztelera eta portugesa, beste batek. Hala ere, horietako bostek euskara dute orain etxeko hizkuntza; gaztelera, beste lauk; biak berdintsu, beste hiruk; portugesa, batek; eta portugesa eta gaztelera, beste batek. Bada, hamalau ikasle horietatik %21,42k bakarrik (hiru ikaslek) ez dute izan euskara hutsezko elkarriketarik. 11 ikaslek, ostera, euskara hutsezko elkarriketak izan dituzte; hau da, euskara hutsa lehen hizkuntza ez dutenen %78,57k sare sozialetan euskaraz egiten dute, edo, gutxienez, euskara hutsez ere egiten dute.

4.4. Ingelesa, bat eta bakarra.

Ingelesaren interferentziak ugariak dira euskarazko elkarriketetan, *Ondorio linguistikoak* atalean (5. puntua) agerian geratuko den bezala, baina ingeles hutsezko elkarriketa bakar bat jaso da

corpusean. Lehen hizkuntzat euskara eta gaztelania dauzkan mutil batek izan du ingeles hutsezko elkarrizketa bat: nazioarteko hainbat herrialdeetako gazteek bidaia baten harira sortutako Whatsapp taldean egin dute elkarrizketa ingelesez.

Hasierako hipotesietan uste nuena baino ingelesezko elkarrizketa gutxiago agertu dira. Pentsatzen nuen nerabeen harreman zirkuluak zabalagoak izango zirela eskualdetik kanpora, baina bistan da harreman zirkulu mugatu horien ondorio dela ingeles hutsezko elkarrizketa bakarra egotearen arrazoia.

5. ONDORIO LINGUISTIKOAK

Atal hau antolatzeko, Orreaga Ibarrek *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa* (NUP, 2011) liburuan azterketa linguistikoa egiteko erabilitako eskema eta marko teorikoa erabili ditut.

5.1. Hizkuntza ukipena, kode aldaketa, transferentzia eta interferentzia.

Hurrengo lerroetan hizkuntzen arteko interferentzia motak desberdinduko ditugu, eta aztertuko dugu zeintzuk diren interferentzia horiek erabiltzearen helburuak.

5.1.1. Hizkuntza txandaketa

Hizkuntzen arteko txandaketa edo kode aldaketa ohiko fenomeno da hiztun komunitate elebidunetan. Faktore funtzionalek eta pragmatikoez baldintzatuako fenomeno izaten da, eta, Ibarrek esplikatzeko duen bezala, bi kodeek baliokidetasun egoeran agertu behar dute, aldaketaren aurreko eta ondoko elementuen ordena bi hizkuntzetan gramatikala izateko moduan. Ez badira errespetatzen egiturazko murrizketak, kode aldaketaren ordez, kode nahasketa (*code mixing*) edo, batzuetan, kodeen ordezkapena (*code shifting*) izan daiteke.

Hona hemen kode txandaketa mota ezberdin batzuk:

A) 'Etiketa' motako aldaketa

Orreaga Ibarrek azaltzen duen moduan, tartekatzen den gaztelaniaren materialak interjekzio moduan jarduten du, etiketa baten moduan: errutina edo formula sozialak, harridurak, makulu hitzak eta diskurtso elementuak izan ohi dira. Eta nahi adina aldiz mugi daitezke egituraren barnean, sintaktikoki lotuta ez daudelako.

Horrelako adibide asko agertzen dira corpusean. Hona hemen batzuk:

-Osea, al loro, sinmas, eske, komoke, gastazo, nidea, deke, royo, aber, segun, karis, a todo esto, loko, metele, adiossss, klabau, toma, perfecto, pasote, aunke sea, asako, tal cual, joder, fijo, vieja, tu, bamos, abiiiiiso, seguramente, Yfin?, pasando?, bengaaaa, suerte, tio, pura vida, suuper, así porque si, memola, ai pobre, me meo, puta madre, total, nu se, se supone, bastante, por?, ke raro, Holi, porfin, no creo, esaaaa ["Hori neska!"], esateko], pues, porseaka, Hombreeee, que mal, de pelo, da igual, A todo esto, ostia que grande, porsí.

Dena dela, etiketa motako aldaketak ez dira bakarrik gaztelaniatik euskarara ekarritakoak. Agertu dira ingelesetik ekarritako batzuk ere. Hona hemen:

-Yaas, yees, yeaaa, hey, plis, when u want, Wow, estais ready?, lol surprice, showa, cara sexy, fyy, okeei, mitic, krak, in de nait [in the night], family friendly, im not sure, nice, money money money, so diferent, thanks, ostia reaal, real, perfect/perfkt, another thing, bota sprinte, super kiute [cute] ez?, for you, lait [light].

Halaber, badago frantsesetik hartutako makulu hitz bat, bakarra, sarri-sarri agertzen dena eskerrak emateko: *mertzi*.

B) Perpausen barne aldaketa

Kasu honetan, perpaus gramatikal edo klausula batean hizkuntza aldatzen da. Hizkuntza bakoitzaren egitura gramatikala babesten da. Edozelan ere, Orreagak ohartarazten duen bezala, batzuetan ez da erraza jakitea perpausen arteko edo perpausaren barneko aldaketa den.

Hona hemen gaztelaniaren eta euskararen arteko perpausen barne aldaketaren adibide batzuk:

-Peñik **a ber que dice** ero

-Eztaipa tio -Zelan ein **o yo que se tío** [emotikonoa] -Fuuuuaaaa -Ederra penkuuuu -**A todo esto** zelan deitzen za? / -Agirre -Zeu?

-Mikeleaz eruten za? [emotikonoa] zoixonak esatzazu / -Ez bañe **por quedar bien** [emotikonoa]

-Niri **me la pela** -Ixe eztot galtzen ez lok juten ez ez juten -**Ke triste** [emotikonoa] -Afaxe baja o

-Litrukkk **k vamos a lo potente????** -Ala **algo mas lait?** / -Niatxik potente

-Joe maite **que aplicada** / Bai ena hasi ikesten baña -Baña bakit ya ze ikesi asike tiiii teeeeu -**Me encanta** ti teu esati -[emotikonoa]

-Maite -**Me da k asako** tardaukotela psikoaz

-Askoik ezti aldatu **creo** [emotikonoa]

-**Si orrialde** pute bat ikesituaz da -Ikesti* / JOE TXUPAUTE DA / -Yaa kriston gitxi da

Badaude adibide deigarri gutxi batzuk, euskara eta ingelesa nahasten dituztenak perpaus barruan:

-Ni Maiten **house** na.

-Horrek **mitic** di eitxon

-Super mozkor politxe atrapa neban / -**Super kiute** ez?

C) Txandakako erabilera edo “perpausen artekoa”

Kasu honetan, hizkuntza bateko eta besteko perpaus osoak txandakatzen dira, eta kode aldaketak hizkuntza bakoitzaren egitura gramatikala babestea eskatzen du.

-Mutrikuarrsk jundi? / -Bai. / -[irudia] **me encanta.** /-[emotikonoa] / -lota nu neu be. / -
Ondo loo [emotikonoa]

-[Bakarrik hemengo gauzak] ya, hori zer? **-bueno si puedes chulear chulea**
[emotikonoak] / -Baña ezta hori be gauzi

-BUUUUUUAA -advanced dauket praktikamente [emotikonoak] / -zeeee -ajajajajaja **C1** / -
[kontaktua] mertziiii / -CEFR LEVEL **C1** [emotikonoak] **-que fuerte / -pero pa 2 años na mas**
txabala [emotikonoa] -[emotikonoa] / -ya...

-Inor zapatun bilboa? / -Zuaz zeta? / -Mikuk jatea -Mokuk / -Ezin neikeee flyy [emotikonoa]
-Txalintxoia nu atzeabe [emotikonoa] / **-A partir pollas** [emotikonoa] / **-Pues si la verda** / -Onare / -
Hombreeee

-Ondo ikusitxe matx **-Si la montaña no va a maoma, maoma ira a la montaña** / -Maite
zerzabiz [emotikonoa] / -[emotikonoak] Tokik tokik emozta -[emotikonoak]

-Listo -[emotikonoa] / -ala lota nu / -Baii / **-deseame. Suerte** kontziertun eta GABAZ / -Lo
asko ein da gero farraxo / **-aber si ligo** / -[irudia] -Eztozu bir suerteik / -nik uste baietz **-aber -si**
zanahoria se acerca un poquito -[emotikonoa] / -Jajajaja -Bai bai -[emotikonoa] / -aii **-q emocion**
-hahahahah -[emotikonoa]

-Barrutik kamiseta baltz bateaz politxe geatzen da -Osea on despija na -Despoja* / -
[audioa] bbaaaaaaaaaaii / -Pf is arin psatendan -Bañe bueno hillebete... -Pf / **-si me lo dices tu, te**
creo -[Pf is arin psatendan] nnoo, oporrak las [emotikonoak] / -Jajajajajaja **t amo** -[si me lo dices
tu, te creo] **Real**

-Eske me da pereza 2 txaketa eruti

Perpausen arteko txandaketa ez da bakarrik gertatzen euskararen eta gaztelaniaren artean.
Gutxiago badira ere, badaude euskararen eta ingelesaren arteko nahasketak ere:

-12 plaza euazen bakarrik ingeniartzan eta 60 pertzonak eskaturabe -eta toka e8ngazta -
iual eztakat suerti / -Zerrena? -Joe / -bioteknologiku usteot **-im not sure** / -[emotikonoa] / -eta mate
erderaz bañe...

-Bazatoz farra? / Kb ontxe aiana etxea eta kantzata na / -Balee /// -[audioa] **-For you**

-[irudia] / **-Yas** / -[irudia] / -Geatukoa? / -Bai -Zitzu bizian erantzun dizut / -Bai bai -
Harrituta utzi nauzu / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] -7rak ero? / **-Perfect** / -
Nicee / -Jajajaja -Nun geatukoa? /

Ageri dira, halaber, hiru hizkuntzen arteko aldi bereko kode nahasketak ere:

-Ah baleeee **-okei** / **-Putaaaa perezi** / -[coordinadetan adversativa ezta bakarrik?] disyun ta coop ez? / **-nosw** -... **-ke shiiiiiiiiit** / -[disyun ta coop ez?] Pentzetot horrik **porsi** apuntau einbidizela baña idatzi bakarrik bestitatie oso gitxi badaz / -Yaa baai -Betez bakarrik fitxaku / **-okei**

-Bai neuk be / -Yaaa / **-Another thing** / -Esannn -Ze eizu gaur ze nik neuk ixebez e [emotikonoak] / -Ixbz -Eta ontxe ot hasten da **-Bueno a lo que iba** / -Yaa...

Neurri askoz ere txikiagoan bada ere, gaztelaniazko elkarrizketa batzuetan ere tartekatzen dute euskara:

-Estas en casa? / -si / -Si quieres cenar tortilla de patatas tendras que poner a cocer. Sabes como? / -si pero con cuantos grados? // **-ama etorrere** / -Ok

-Alguno quiere venir el sábado a multi? -A la mañana / **-Ze ordutan da?** / **-Itxoin** - [irudia] / **-Ni igual bai**

-Pensé que te gustaría. **-Eguberri on mikel** -Me alegre -Yo no pude ir por tema crias... Pero me dijeron que genial **-Eskerrik asko**. -[birbidalita]

Eta baita, elkarrizketa batean, gaztelera+ingeleza+euskara ere:

-Maite bienes? / -sisi / **-estais ready?** / -No / -maite toca el timbre / -Maite y yo estamos en la parada -Venid -Ya / -somos puntuales / **-maite baguz** -[irudia]

5.1.2. Arrazoiak

“Zer har daiteke beste hizkuntza batetik norbere hizkuntzarako”, galdetzen du S. Thomasonek⁸, eta erantzuna ere berak ematen du: “Erantzun laburra hauxe da: dena”. Edozelan ere, Orreagak nabarmentzen du, Appeli eta Muyskeni⁹ erreferentzia eginez, hiztun elebidunek aldaketa horiek egiteko dauzkaten arrazoiak bat datozela egiten dituzten komunikazio funtzioekin.

A) Erreferentzia funtzioa

Ingelesetik zein gaztelaniatik hartutakoak:

-Lelen **data disc** sartu bizu, eta **actualizaziñoi** zatixe amaitzendanin **game disc** -Eztai pillazun / -Mutil bat eta neska bat agertzen di / -Bertan disko erdixan baltzin ipini enbirdau **data dick** eta **game disco**

-Maite kendutzaxun **bluethooth** eta **wifixe**

8 Thomason, S. *Language contact* (Edinbug University Press, 2001)

9 Appel, R., Muysken, P., *Bilinguismo y contacto de lenguas* (Ariel Lingüística, 1996)

-**Spoilerrik** ez -zelaik dakixu?

-Ertzañak morrun daz / -[emotikonoa] / -da elikopteru dabil lla denporan bueltaka / -Oo -Ba iual bai / -**salbamento marítimo** ipintxetza

B) Funtzio konatiboa

Berbalaguna konbentzitzeko edo jokaera aldatzeko erabiltzen dira, gaztelaniazkoak eta ingelesezkoak:

-[irudia] -Ai ama / -**Omg** / -[emotikonoa] -Entrenu zelaik? / -Normal / -A ondo ordun - Mutrikuarrsk jundi? / -Bai / -[irudia] -**me encanta** /

-Maite baja / -**Plis**

-Danok etorri **sin falta!!!**

-Ia tartetxo bat bilatzezun aunke sea azken 30 min. **Sin presion e!** Ezin bazeinke ba....
[emotikonoa]

-[Afaxe baja o] [emotikonoak] **algo es algo**

-Okay -**Tu** -[Ikasi bibdazu hauxe ikasi] Hamen eztazenak, adibidez, subordinada sustantiva de sujeto ipini enbirde?

-Eztaipa **tio**

C) Funtzio adierazkorra

Euskaraz berbetan ari direnean, adierazpen indarra behar dutenean, tarteka gaztelaniara eta ingelesera pasatzen dira:

-Gauzatxuk enllabe akademian / -**whaaat** / -Eta nataliak eta mikik bebai

-Txalintxoa nu atzeabe [emotikonoa] / -**A partir pollas** [emotikonoa]

-Zelan ein **o yo que se tío** [emotikonoa]

-**La sabiduria es poder** -[emotikonoa]

-Lista de esperan 135..na na farmazian -**toma**

-**Pasote** [emotikonoak]

-**Me meo**

-Putra madre

-Zoixonakk Maite !! [emotikonoa] Vieja [emotikonoa]

**-Eta PSOEek garrantzi handixe harturabela hortik aurrea -Eta ya / -Mi maa / -Zuk? / -So
diferent / -Benga ya -Eta batxokixanin niri ondorixuk bastante motza**

-Loco / -Ze mobida / -00:00 zeure etxin ikasteko? [emotikonoak] / -Einde [emotikonoa]

-Tu, eztakat goo putaik ikasteko [emotikonoa] eta ondion eztgai ganoraz

**-[...]/ -Ba eztaiz -egun eskaza euki neban -potau eineban bazkal ostin nose de que -ta Bretan
ya ko lota junitzen -lo seko gatu nitzen / -ai pobre -que mal -nik gaur potaubiot zoze jan ezkerro -
jaot pure -ta en la shit -PUTO KALIMOTXO -[audioa] / -[...] -bidixu da [emotikonoa] / -ostia
reaaaal -que guay -kriston ondo gatzeatzu / -ba luzi noie idta [emotikonoa] / -yaa [emotikonoa] -
baña komennnto je / -thanks :) / -jiji -que talll -la vida / -atzo mal -gaur bien**

-Ezer biher da Berritxun? / -Pastel de puerros ¿QUE ILUSION!

**-Ederra feu -Espillun ikusikoizan / -Bixotzekuaz -In de front of de mirror / -Kristala apurtu
eta arpexan sartu / -In de nait**

D) Funtzio metalinguistikoa eta poetikoa

Hitz jokoak egiteko edo esaera zaharrak aipatzeko erabiltzen dituzte, eta batzuetan ironia adierazteko erabiltzen dituzte. Badaude kasu batzuk:

-Ondo ikusitxe matx -Si la montaña no va a maoma, maoma ira a la montaña

-Calla... luego otorga

-Que talll -la vida / -atzo mal -gaur bien

**-Money money money / -9€ -Eta yan yanen 5 / -[emotikonoa] / -Mesedeez / -Zemat diro
zuze erutea?**

5.1.3. Kalkoak

Kalko linguistikoa gaztelaniaz edo ingelesez ahoskatutakoak oinarri hartzen dituzten euskarazko esaldiak eta esamoldeak dira. Asko dira, eta ohartu ere ez gara egiten horietako askotaz. Hona hemen adierazgarrietako batzuk:

-Mikeleaz eruten za?

-Boli re [gezurra da]

-A saber boli bara

-Gosazu [gose handia]

-Marroi re

-Iual ena desiaten

-Afaltzea **pedo jungoa** bañe

-**Jamon putaik** eztozte etxen

-Eztai pillazun

-5pabo nu pillatea

-Paji re [oso erraza da]

-Gazte mamaute da [oso erraza da]

-Joe txupaute da [oso erraza da]

-Kriston nuli

-Mareadi dauket

-**Royo asako bidar** laarabela eta

-**Sinoke royo** gorauatik etorrela

-Ze ordutan ze **matata aiatena** [emotikonoa] / -Ze patata -Txo errespetu / [emotikonoa] / -
[lotura] / -**Potruk na lagaten**

-Niri ya eztozta emoten grazirik -Moskea etxena

-Ederra palu

-Kriston tufu

-Mierda bat da

-Rayata na

-Ske raiaute na

-Ederra penkuuuu

-Ze biziadan ya? / -Anaxi dabil

- Ez palea kodigu
- Esajerau peña
- Pira guz botatea
- Afiziñoin idolu za
- Regatea arpirik aldatu baik
- Ostia desgrazixi
- Ederra madrugoi
- Timazte pro directekuk
- Tokata geatuna
- Ena aklara
- Ederra guapu emotikonu
- Preokupaute na
- Molakotzu
- Jugoi de
- Benga eeee igual eztakazu kriston aji
- Hori **pura vida** ra txo
- Ze mobida
- Beran burun nivelea
- Usteot alkarrei txinaten eongoala
- Enplan merketxua

Bestalde, atentzioa dietu dit kalko batek:

- Bota sprinte

Euskararen eta ingelesaren arteko kode nahasketa da, baina gaztelaniaren logikaren galbahetik pasata: *echa una carrera* > *bota arineketaldi bat* > *bota sprinte*

5.1.4. Lokailuak

Barra-barra erabiltzen dituzte gaztelaniatik hartutako lokailuak, sarri euskal grafiara ekarrita:

-Osea/ozea...

-Oseaq

-Eske/ske/sk

-Sinoke

-Komoke

-Da [eta] aparte

-A todo esto

-Aunke sea

-Aber

5.2. Hizkuntzaren berrikuntzak:

5.2.1. Laburdurak

Laburdura ugari erabiltzen dituzte, baina ez dago laburdurak erabiltzeko arau bakarrik, ezta ere laburdurak beti modu berean egitekorik; bakoitzak bere erara eta komeni zaionean erabiltzen ditu. Gainera, euskarazko berbekin, gaztelaniakoekin zein ingelesekoekin erabiltzen dituzte laburdurak.

Hona hemen euskarazko laburdura batzuen adibide batzuk:

-Bñ [bañe > baina]

-Bñ.sty [bañe ezta > baina ez dakit]

-Snms stay [sin más, ezta > sin más, ez dakit]

-Ztay / Ztai / ztait [ezta > ez dakit]

-Zln [zelan]

-Zb [zeba > zer ba(da)?]

-Mese [mesedez]

- Dka* [dauka]
- Ikas2n* [ikasbidaian]
- Biziaz* [bizikletiaz]
- Matx* [matxi > maitea]
- Esk ask* [eskerrik asko]
- Fikin* [Fisika-kimikan: ikasgaia]
- Gazte* [Gaztelania: ikasgaia]
- Marraz* [Marrazketa: ikasgaia]
- Mate* [Matematika: ikasgaia]
- A2* [Ados > A+2(DOS, gaztelaniaz)]
- Zk* [zuk]
- Lsai* [lasai]
- Bost min* [bost minutu]
- Ixbz* [ixebez > ezer ere ez]
- Exam etxeko* [examina egiteko]
- Matxi ez ein igno* [ez nazazue ignoratu] *ze danok irakurrizue*
- Entrenu* [entrenamendua]
- Sature guz* [Saturrenara]
- Beikoziko or* [Beikozinako hor]
- Kamin na* [Kamiñazpin na]
- Stradin* [Stradivarius denda]

Euskarazko aditz forma batzuk ere laburtzen dituzte:

- Banat* [banator]

- Bardinza* [bardin dosta]
- Niri eztozta* [niri ez dosta ardurarik]
- Nun z?* [Nun za? > Non zaude?]
- Lokalin g kari* [Lokalin ga]

Gaztelaniazko laburdurak:

- Esk* [es que]
- Kb ns* [Keba no se > Qué va, no se]
- Kb kb* [keba, keba > qué va, qué va]
- Snms* [sin más]
- Wpu* [guapo]
- Ederra wppp* [Ederra guapoa]
- Bl* [bale > vale]
- Transp* [transparente]
- Punt / puuuunt* [punto]
- Dpm txo* [De puta madre, txo]
- Porfffaaa* [por favor]
- Pitxxx* [pichín]

Ingelsezko laburdurak:

- OMG* [Oh my Good]
- Rt / Rtttt* [retweet]
- Ok*
- Ko* [knocked out]
- Lol* [laughing out loud] eta, adierazkorrago egiteko: lololo

-*Wtf* [What the fuck]

-*Maite ez flip* [to flip out]

-*Insta* [instagram]

-*Perffff* [Perfect]

Emotikono bat irudikatzeko ere laburdura erabiltzen dute batzuetan [begiak itxita barre algaraka ageri den emotikonoa]. Emotikonoaren itxuran oinarriutako laburdura da, baina, kasu batzuetan, laburdura luzatu egin dute, eta berba bat sortu:

-*Xd* / *Ekisde*

Hona hemen adibide batzuk:

-[audioa] / -*Ba ni enabil xd* / -*Eh* / -***Ekisde*** / -*Ni juggerra eta red bullak ekarririkot -Xd* / -***Ekuikste***

-“*Esta farraik*” ***kb kb*** [emotikonoa] / -*Kotxaue zapatu xd* [emotikonoa] / -*Domeki be aparte ezta geatzen xd* / -[emotikonoa] / -*Jajaja -Ekiosde lol*

Frantsesetik hartutako agur hitza ere laburtu egiten dute batzuetan:

-*Mertzz* [mertzi > merci]

Badago joera bat toki deklinabideak ez jartzeko, eta laburdurak erabilzen dituzte:

-*Ni ontxe nu kal* [kalera]

-*Urten balk* [balkoira]

-*4 kato gaz bakarrik lok* [lokalean]

-*Laga lok* [lokaleko] *beiko ati iratxe mese*

-*Ze ord zuze pot?* [Ze ordutan zoazte poteatzera?]

-*Esk ze ordutan guz pot?*

-*Maite lok* [lokalera] *ekarri bikozu*

-*Etorri lok* [lokalera] *ez?*

-***Lok*** [lokalean] *zaze?*

*-Bakotxe beran **bo** [bolan] itxuri danez*

Baina ez dira desagertzen leku-deklinabideak bakarrik laburduren mesedetan:

-Nik zap [zapatak] sin mas nu

5.2.2. Batuaren erabilera: noiz eta zeintzuk

Ikasleek *Soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa* (1. fitxa) bete zutenean esan zuten ia inork ez duela euskara baturik erabiltzen. Ia-ia denek zioten herriko hizkera erabiltzen dutela beti, bai Whatsappen bai Instagramen. Lagineko —osoko zein hautatuko— ikasle bakarrak esan zuen batua ere erabiltzen duela ondarroarrarekin batera Instagramen.

Behin corpusa aztertu eta gero, esan daiteke Ondarroako nerabeek ia ez dutela erabiltzen euskararen forma jasoa sare sozialetan, baina ageri dira euskara batutik xurgatutako forma batzuk eta lexikoa ere. Hona hemen adibide batzuk:

A) Lexikoa:

-Azarun [eta ez: nobienbrin]

-Irailin [eta ez: setienbrin]

-Otsailera [eta ez: febrerure > febreru re]

-Lurrin [eta ez: behangañin]

-Jarduera

-Kakalardo berde bi

-Ostiralin [eta ez: baixakun]

-Itxarote zerrenda

-Tauli [eta ez: tabli]

-Adine [eta ez: edadi]

-Gutxi [eta ez: gitxi]

-Ados [eta ez: konforme] / -gutziz ados

-Azterketakin [eta ez: esamiñakin]

-Hori da

-Egilea? / -Ezezaguna?

-Aldizkari sozialista

-Kriston **eztabaidi** eukigendun [eta ez: diskusiñoi]

-Itxuraz **maitagarri** bat dakat [eta ez: aingero guardaku; gaztelaniazko *hada*]

-Jentee, iñor bara **prest** [eta ez: listo]

-Farrako **prest**

-**Aipatzea** zuz? [eta ez: aittatzea zuz?]

B) Aditz forma:

-Pentsa **genun** [eta ez: pentsa gendun]

-**Ziñeten** [eta ez: ziñen]

C) Erabilera osoa:

Bi kasutan bakarrik erabili dute euskara formala edo estandarra, bi-biak testuinguru jakinetan.

Lehenengoa, kirol talde baten Whatsapp taldean:

-Gaur arratsaldeko karateko exhibizioa dela eta 3. eta 4. aldageletatik sartu behar gara. -Eta IXILIK -Mesedez -Eskalada eskola oharrak: +Gaur izan dugu opor aurreko azken eguna. Bueltako lehen eguna urtarrilak 14a izango da. Urtarrilak 7 tik 11ra bulderreko koltxonetak berriztu behar dituzte. -2019an kuota batzuk igoko dira: +Federatzea 19€. -Irteerea prezioak nagusiak 7€ eta gazte edo umeak 5€.

Bigarrena, bi ikasleren artean. Elkarriketa bidali duen ikasleak zehaztu du ikaskidea euskaldunberria dela. Beraz, ulermena errazteko erabiltzen du erregistro estandarra:

-Ondo -Zeu zelan oporretan? / -Ondo /// -Holaa /// -Kaixo Miate oraintxe ikusi dut zure agenda neure motxilan -Ez dakit zelan eduki dut baina hemen daukat / -A bale bihar ekarri ikastolara / -Bale [emotikonoa]

D) Umorerako eta ironiarako erregistro bezala:

-Yas / -[irudia] / -Geatukoa? / -Bai -**Ziztu bizian erantzun dizut** / -Bai bai -**Harrituta utzi nauzu** / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] -7rak ero? / -Perfect / -Nicee / -Jajajaja

-Aiiii eneeeee / -Zapatun euririk ez -Minimuk 10 -Maximuk 17 / -**Negu leuna -Edurrik ez du egingo Prezipitazioak euri erara jauziko dira** -Sinmas -Tokata geatuna geografia, / - [emotikonoak] / -Ui -Oporrak birdouz guk / -benetanbe gabon nezesidadi ra

-Zuk zeñeaz zazela berbetan pentsatezu... / -[irudia] **Neure maiestiaz** [emotikonoa]

5.3. Lexikoaren erabilera

Dagoeneko aurreko ataletan aipatu dugu erderetako lexiko ugari hartzen dutela euskara ekartzeko, eta moldatu gabe edo euskarara moldatuta erabiltzen dituzte.

Besteak beste, aipatu ditugu teknizismoak eta anglizismoak (*data disc, game disc, bluethooth, wifixe, spoilerrik ez,*...), gaztelaniaren eragin lexikala daukatenak (*palea, pilla, tio, 5pabo, biziadan, raiata, pedo, madrugoi, penku, txabala, loco, boli,*...) eta ingelesarena daukatenak (*kiute*). Baita ere fraseologia mailan gazteen euskararen agertzen diren interferentziak (*-Me encanta ti teu esati // -Me da k asako tardaukotela psikoaz // -Ni Maiten house na // -Super kiute ez?*).

Horiekin batera, nabarmendu nahiko nuke hizkera jatorretik ere edaten dutela nerabeek: eusten dietela, hein batean, berezko lexiko aberastasunari, eta forma berriak ere sortzen dituztela, senez. Hona hemen adibide batzuk:

-Gexeeei!!!

-Onenaaaa

-Benetan be

-Agur eta jan jogur

-Txo

-Intzirrikatun

-Popi hotzitzen

-Ederra putetxi

-Iiia laun

-Banabil

-Taaaak

-Egurre olluai

-Egurre emongotzuet danoi

- Txapela erunde [irabazita]
- Popatik hartzea
- Aufff
- Zereko beian
- Igarrikotzat laun
- Beakuni botateko morun
- Kamisetan barririk baakau?
- Eroze engotzat
- Kontixu
- Kriston atxurraz [mozkortuta]
- Pasuatzu atune [mozkorra]
- [Azterketan] 1,67 atarot -Asike / -Ama -Ze zulo -Ederra grui txo - [ermotikonoa]

5.4. Beste ezaugarri batzuk.

5.4.1. Ortografia

Orokorrean, arau ortografikoa da araurik ez dagoela. Esaldi eta elkarrizketa berean gerta daiteke aurkitzea araua hauste bat —era ezberdinetara gainera— eta, aldi berean, araua errespetatzen duen forma ere erabiltzea.

A) Z>S eta S>Z nahasmendua

- Sorutzen
- Bazerritxar
- Bistute
- Jantsitxe
- Estai [eztai > ez dakit]
- Historias [Historiagaz]

- Esina* [ezina > ezin naiz]
- Esindot* [ezin dot]
- Eseuan* [ez egoan > ez zegoen]
- Bicias* [biciaz > biziaz > bizikletiaz]
- Lastana*
- Pertzonak*
- Pentzatendot*
- Eskaza*
- Gasteditik* [Gazteditik]
- Jerts utzas* [jerts hutsaz > jerts hutsagaz]
- Atzaldin*
- Kozta etxengazta*
- Esatias* [esatiaz > esateagaz]
- Gausa bat*
- Zartu laun*
- Mikeleas* [Mikeleaz > Mikelegaz]
- Aitas* [Aitaz > Aitagaz]
- Argaskixe*
- Ezkerrak* [eskerrak]
- Narruzkuas*
- Mobistarreas*
- Astuasta* [ahaztuasta > ahaztu gasta > ahaztu jata]
- Basuze* [bazuze > bazoazte]
- Abiza* [abisa]

B) LL>Y>I nahasmendua eta NDD>LL nahasmendua

-Ia [ya]

-Lla [ya]

-Lla lla [ya ya]

-Apolla [apoya]

-Ezinllot [ezinddot > ezin dot]

-Lia enllot [einddot > egin dot]

-Enllabe [einddabe > egin dabe]

D) H-a

H-a ez da ahozkatzen, beraz, idatzizkoan ere sarri desagertu egiten da.

-Or [hor]

-Ori [hori]

-Oixe [horixe]

-Astu [ahaztu]

-Arutz [haruntz]

-Utzas [hutsaz]

-Obetooo [hobeto]

Ez dagokion tokian ere ageri da H kasu batzuetan:

-Datorren **hastin** hastengaz asterketa **astiaz**

Eta bokal artean eroritako kontsonante batzuk ordezkatzeko ere erabiltzen dute kasu batuetan:

-Bahakixu [eroritako D, H bihurtuta]

C) B>V eta V>B nahasmendua; baita ere V>U edo B>U

-*Pentsatenevan*

-*Uelta* [buelta > vuelta]

-*Zeva* [zeba > zer ba]

-*Vai* [bai]

D) Maiuskularik eza

Ez dute arau argirik erabiltzen maiuskulak erabiltzeko: ez dituzte beti erabiltzen letra larriak, ez izen propioak aipatzen dituztenean, ez esaldi hasieretan.

E) Puntuaziorik eza

Puntu, koma eta puntu eta koma oso gutxi erabiltzen dituzte, ia batere ez. Normalean ez dute erabiltzen punturik esaldien amaieran; izan ere, normalean, idatzitako mezu bakoitza esaldi bat izaten da. Mezu bat izateak berak erakusten du esaldi bat dela, eta ez dago puntuarekin adierazi beharrik esaldia amaitu denik. Nolanahi ere, arau horrek ere ez du beti balio, esandakoari adierazkortasuna emateko, esaldi bakar bat hainbat mezutan ere zatitu dezaketelako.

F) Idazketa akatsak

Akats tipografiko ugari ageri dira elkarrizketetan, sarri berbaren jatorrizko zentzua zein den ulertzea ere zaildu eta eragpotzi dezaketenak. Beste barik, behatzarekin bizkor idazterakoan letraz edo zenbakiz nahasteak eragindkao akatsak dira.

6. ONDORIO NAGUSIAK SOZIOLINGUISTIKAREN IKUSPEGITIK

Ondorio nagusien irakurketa soziolinguistikoa egiteko ere ahaleginduko naiz sakontze egitasmoaren hasieran zehaztutako bi helburuetan zentratzen eta horien arabera antolatzen gogoeta: lehenengo helburua euskarak sare sozialetan daukan dimentsioa neurtzea da; eta, bigarrena, aztertzea zenbaterainokoa eta zelakoa den kode nahasketa elkarrizketetan, zer erregistro darabilten eta zeintzuk diren idazkera ezaugarri nabarmenenak.

→ *Euskararen dimentsioa sare sozialetan.*

Hizkuntza erabiliena eta erreferentziazkoa euskara da Ondarroako 16-18 urte bitarteko nerabeen sare sozialetako jardunean, alde handiarekin. Euskara hutsez edo nagusiki euskaraz dira elkarrizketen %85; gaztelaniaz edo nagusiki gaztelaniaz dira %14,5; eta ingelesez, %0,5.

Sare sozialetan euskarak daukan nagusitasun nabarmen hori ezin da modu isolatuan ulertu, testuinguru soziolinguistiko jakin batek ahalbidetu, sustatu eta bermatu baitu euskararen hainbesteko presentzia. Gakoa da kaleko komunikazioan **arau soziala euskara izatea**: laginaren %94k adierazi du kalean euskara hutsez aritzen dela. Euskara erabilera esparru guztietan da nagusi —etxean, ikasgelan eta kalean—, eta modu nabarian gainera.

Euskara, beraz, erabilgarritasunarekin, erreferentzialtasunarekin, nortasunarekin, aisialdiarekin, informaltasunarekin eta dibertsioarekin ere lotzen da. Kaleko arau sozial horrek domino efektua eragiten du beste erabilera esparruetan ere: etxean, esate baterako.

Lagineko ikasleen %72k dute bakarrik euskara lehen hizkuntzatzat, eta, hala eta guztiz ere, **etxeko hizkuntza** euskara dute %80k. Horrek esan nahi du kaleko arau sozialak baduela indarra eta erakargarritasuna etxera ere sartzeko. Euskal Herriko bestelako errealitate soziolinguistikoetan gaztelaniaren eta frantsesaren kaleko nagusitasun eta erreferentzialtasun biziak tokian tokiko etxeetako hizkuntza ohituretan atea jotzen duen bezala, Ondarroan ere jotzen du etxeko atea, baina alderantziz, euskararen mesedetan.

Kaleko arau sozialak ez du eragina bakarrik etxeetan, baita sare sozialetan ere. Euskararen erabilera kalean baino 8,7 puntu apalagoa da **sare sozialetan**, baina hizkuntza nagusia da, alde handiarekin.

Halaber, ondoriozta daiteke euskararen kaleko erabilera eta sare sozialetakoa ezin direla mimetikoki konparatu, bi espazio eta bi harreman esparru oso ezberdin direlako. Sare sozialek aukera ematen dute harreman zirkuluak handitzeko eta zabaltzeko —herritik, eskualdetik eta baita herrialdetik kanpoko pertsonekin ere—.

Lagineko nerabeen artean sare sozialetako harreman zirkuluak ez dira oso zabalak; hau da, ez dituzte herritik eta eskualdetik kanpoko bakarkako eta taldeko elkarrizketa asko. Ziurrenik adina faktore garrantzitsua da harreman zirkuluak zabaltzeko orduan: behin unibertsitatera edo lanera herritik kanpora atera eta gero, aukera gehiago dago harreman sareak ere zabaltzeko sare sozialetan, eta, beraz, erdararen erabilera handitzeko aukera ere handiagoa da. Hain zuzen ere, sakontze egitasmo honetan aztertutako datuek erakusten dute sare sozialetako elkarrizketetan **erdararen**

presentziaren eragile nagusia *kanpoko berbalagunak* direla, hau da, bestelako testuinguru soziolinguistikoetako hiztunak.

Bestalde, aipatzekoa da **asialdiko jardueren eta kirol taldeen hizkuntza** ohituren eragina ere. Gaztelania da nagusi Ondarroatik kanpoko hiru kirol taldeetako Whatsapp taldeetako elkarrizketetan, eta ia-ia gaztelania hutsez ari dira: Bilbo, Eibar eta Ermuko kirol taldeak dira. Aldiz, Ondarroako aisialdi eta kirol talde guztietan, salbuespenik gabe, euskara da nagusi eta bakar: igeri taldean, futbol taldean, arraun taldean, eskalada taldean, eski taldean eta musika eskolakoan. Hain esparru ezberdinetan euskara transbertsaltasunez erabiltzeak etengabe elikatzen du kaleko arau soziala; kontuan izatekoa da, gainera, dibertsioarekin, plazerarekin eta gazteen arteko harreman informalararekin lotutako esparruak direla.

→ ***Errealitatea eta pertzepzioa ez datoz bat.***

Kalean baino 8,7 puntu apalagoa da euskararen erabilera sare sozialetan, baina gogor eusten dio nagusitasunari. Hala ere, errealitatea eta nerabeen pertzepzioa ez datoz bat: uste dute darabiltena baino gutxiago erabiltzen dutela euskara sare sozialetan.

Lehenengo inkestan galdetuta, ikasleek uste dute kalean baino dezente gutxiago erabiltzen dutela euskara sare sozialetan: 26 puntu gutxiago Whatsappen, eta 21 puntu gutxiago Instagramen. Ikasleen %68k diote bakarrik euskara erabiltzen dutela Whatsappen, eta %73k Instagramen. Alabaina, elkarrizketak aztertu eta gero, erabilera handiagoa da bietan: elkarrizketen ia %85 dira euskara hutsean edo nagusiki euskaraz Whatsappen, eta %89 Instagramen.

Ikasleen pertzepzio ezkor horren atzean hainbat arrazoi egon daitezke: besteak beste, hiperzuzentasunaren inguruko presioa eta autoestimu linguistiko urria. Ibarrek nabarmentzen du¹⁰ euskal hiztun ugari kexatu izan direla esanez euskararen inguruan zuzentasunaren aldeko tentsio handiegia egon izan dela. Hau da, kasu eta egoera askotan zuzentasunari eman zaiola lehentasuna, eta ez egokitasunari eta jatortasunari. “Garbizalekeria freno bat izan daiteke hizkuntza baten hedapen naturalarentzat”, ondorioztatu du Ibarrek.

Zuzentasunaren presio hori dela eta, erruduntasun soziala ere sentitzen dute euskal hiztun askok gaztelera erabiltzeagatik, edo gazteleraren interferentziak erabiltzeagatik euskaraz ari direnean ere. Gainera, kontuan izan behar dugu hiztunak berak ez duela berdin hautematen ahozko hizkera eta idatzizkoa: ahozkoa haizeak eramaten du eta idatzizkoa hor geratzen da, eta idatzi eta gero ere irakur daiteke, patxadaz. Posible da, beraz, lagineko nerabeek euren sare sozialetako elkarrizketak irakurtzean jabetzea ez daudela *euskara zuzenean* idatzita, gazteleraren eta ingelesaren interferentzia asko daudela, eta, ondorioztatzea, azken finean, sare sozialetan ez dabilzala euskaraz-euskaraz. Horrek azal dezake autopertzepzio ezkorra. Badirudi, beraz, Ondarroako nerabeek ere badutela autoestimu linguistikoa lantzeko beharra, nahiz eta euskararen arnagune batean bizi.

→ ***Kode alternantzia eta nahasketa: ‘euskañol’, ‘eusklish’ eta ‘euskañolish’.***

10 Orreaga Ibarra (2018: 193)

Aurreko atalean esan bezala, euskara da nagusi aztertutako sare sozialetako elkarrizketetan. Baina euskara hutsezko elkarrizketatzat katalogatutakoetan ere —elkarrizketa horietan %20tik beherakoa da erdaren presentzia— ia etengabeak dira beste hizkuntzetako interferentziak, nahiz eta euskararen nagusitasunera oso asimilatuta ageri diren interferentziok. Hortaz, munduko beste hiztun komunitate askotan bezala, Ondarroako nerabeen artean ere, sare sozialetan indar handia dute kode alternantziak eta kode nahasketak.

Nagusiki gaztelaniaren interferentziak ageri dira, baina baita ere, neurri txikiagoan izan arren, ingelesarenak ere. *Euskañola* nabarmen sumatu daiteke elkarrizketa batzuetan, baina ageri dira *eusklisch* deitu diezaiokegun kode nahasketaren zantzu batzuk ere. Are gehiago, elkarrizketa batzuetan kode nahasketa ez da bakarrik bi hizkuntzen artekoa (euskara+gaztelania), ezpada hiruren artekoa (euskara+gaztelania+ingelese): *euskañolish* izena jar diezaiokegu, izen bat ematearren. Elkarrizketa batzuk ulertzeko, beharrezkoa da gaztelania eta ingelese ere menperatzea.

Interferentziek lexikoan zein fraseologian dute eragina, eta gehienetan euskal grafiara ekarrita daude gaztelaniazko lokailuak (*komoke, eske, asike...*) eta baita ingelesezko berba batzuk ere (*kiute, in de nait...*)

Ez da eskuak burura eramateko kontua. “Belaunaldi bakoitzak pentsatzen du ondorengo belaunaldiaren berba egiteko modua, janzteko modua eta portatzeko modua berea baino txarragoa dela”, ohartarazi du Ibarra¹¹. Euskararen kasuan, dena dela, ulertzekoa da kode alternantziak hiztun batzuegan eragin dezakeen beldurra, kontuan izan behar baita hizkuntzaren tamaina txikia izanda eta fisikoki bi hizkuntza erraldoiren tartean egonda, nahasketa hizkuntzaren galerarako mehatxutzat bizi izan dela.

Edonola ere, kode alternantziarena eta nahasketarea **joera globala da**, eta haren kontra sortutako beldurra ere bai. Hiztun heldu askok honela ikusten dituzte sare sozialetan idazten dituzten gazteak, baita hiztun komunitate anglofonoan ere: “Bandalo batzuk dira [sare sozialetan idazten duten gazteak], eta duela 800 urte Genghis Khanek bere bizilagunei egin zien gauza bera egiten ari dira gure hizkuntzari: birrintzen ari dira”¹².

Crystalek 2008an zioen munduko parte gehienak elebidunak direnez espero zuela sare sozialetako idazkeraren etorkizuneko ezaugarri nagusia kode nahasketa izango zela. Sakontze egitasmo honetan ikusi dugu kode alternantziak indar handia duela, nagusitasuna euskarak badu ere.

Kode alternantziarako joera hori bizkortu egin dute masa hedabideen eta masa kontsumo ohituren hedapenak: Internetak, jatorrizko bertsioan ikusten diren serie famatuak, telebistako realityak, bideojokoek eta abar. Hain zuzen ere, Crystalen ustez, hizkeraren “aldaketaren bizkortasuna” da gaur egungo berezko ezaugarrietako bat.

Portaera linguistiko bera partekatzeak, preseski, komunitate izaera sustatzen du hiztun taldea osatzen dutenen artean¹³. Hizkuntzalariek azaltzen dutenez, gainera, gazteen hizkeran kode alternantziaren erabilerak bi arrazoi ditu: alde batetik, **transgresio nahiari** erantzuten dio, eta, bestetik, **talde nortasuna** ematen die. Ondarroako nerabeek, beraz, lotura zuzena egiten dute sare sozialetan ere euskararen eta nortasunaren artean.

11 Orreaga Ibarra (2018: 57)

12 David Crystal (2011: 4)

13 Davis eta Brew (1999: 34)

Adinari lotutako portaera naturala da transgresioarena, hizkuntzan ere islatzen dena. Ibarrek esplikatzeko duenez, gazteek hiru aldaeraren aurka egiten dute, berariaz: eskola arauaren, estilo jasoaren eta helduen kulturaren kontra. Hala ere, sumatzen du gero eta heldu gehiago saiatzen direla beren burua “gazteagotzen” hizkeraren bitartez ere, gazte hizkeratik hartutako adierazpenak erabiliz. Lagineko elkarrizketetan, egia esan, ez dago alde handirik nerabeen eta nagusien artean, ez behintzat erregistro aldetik; hau da, orokorrean, nagusiek ez darabilte hizkera jasoagoa, baizik eta herriko hizkera, ahozkotasanari eta informaltasanari erabat lotutakoa.

Era berean, Ibarrek dioten bezala, ondoriozta daiteke kode nahasketaren aldeko portaeraren arrazoia ez dela hiztunen euskarazko gaitasun urria (bakarrik), arrazoi sakonagoak baizik: konnotatu beharra, umorea eta ironia edo testuingurua daukaten egoerak nabarmentzea. “Eta ez da gazteen artean bakarrik gertatzen, euskaldun heldu eta peto-petoen artean ere oso arrunta izan da, eta gaur egun ere bada kode nahasketa”.

Sare sozialetako hizkeraren beste ezaugarrietako bat, Crystalen esanetan, “jende arruntaren **moldagarritasun linguistikoa** da, bereziki hiztun gazteena”. Kontuan izan behar da Whatsappeko eta Instagrameko elkarrizketa idatziak ez direla erabat kokatzen idatzizko esparruan, baina ezta ere erabat ahozkotasanarenan. Tarteko lurralde bat da sare sozialen idazkerarena. “Idazkera bere modurik primitiboenean ikus dezakegu”, Crystalek dioten bezala. Eta ahozkotasanaren eta idatzizkoaren arteko lur hori linguistikoki eremu oso emankorra da berritasunetarako eta asmamenerako, bereziki gazteen transgresiorako eta jolaserako berezko nahi hori tartean izanda.

Jolas linguistikoak une oro ageri dira, euskaraz zein kode nahasketa betean. A2 laburdura da adibideetako bat, euskarazko hitz baten laburdura da, baina gaztelania ere sartu dute ekuazioan. Jolas linguistikoak, beraz, hizkuntza artekoak ere badira. Nolanahi ere, Crystalek esaten du nahiz eta sare sozialetan idazten duten gazteek desberdin izan nahi duten, eta nahiz eta asko gozaten duten arauak apurtzen, badakitela muga batzuk ere errespetatu behar dituztela, azken finean, nahi dutelako berbalagunek ulertzea beraiek esandakoa. Horrelako adibide bat agertu da lagineko elkarrizketa batean. Hona hemen:

*-Ze ordutan ze **matata aiatena** [emotikonoa] / -Ze patata -Txo errespetu / [emotikonoa] / - [lotura] / -**Potruk na lagaten***

Kontziente dira muga batzuk gurutzatu dituztela, gozatu dute transgresioaz, baina elkarri aitortu diote muga. Berez, arau hausteez disfrutazeko ezagutu egin behar da araua, baina ez nago ziur beti hori gertatzen ote den: arau hauste ortografiko askoren atzean ezjakintasuna egon daiteke transgresioa baino gehiago.

Nolanahi ere, azpimarratzekoa da, interfentzien erdian, indar handia dutela euskalkiak eta herriko hizkerak, eta nerabeek oraindik ere jotzen dutela, kasu batzuetan behintzat, euskararen senera eta lexiko eta esamolde jatorretara (*intzirrikatun, zereko beian, txapela erunde...*).

Kode nahasketarekin amaitzeko, Ibarrek defendatzen du gazteen hizkera jargoi bat edo erregistro propio bat dela, eta azpimarratzen du jargoiak egotea hizkuntza orokorra aberasteko arrazoia dela. Antzeko irakurketa egiten du Crystalek ere, argudiatuz gazteen hizkera berriak zaharren hizkerak

adina blai duela: “Hori funtsezkoa da, edozein hizkuntzaren etorkizuna hiztun gazteen eskuetan baitago”¹⁴.

→ *Erregistro falta eta batuaren interferentziak.*

Lehen inkestan galdetuta, nerabeek adierazi zuten ez zutela erabiltzen euskara estandarrik sare sozialetan. 224 elkarrizketak aztertu eta gero, berretsi daiteke baieztapen hori: erregistro pobrezia dago. **Erregistro informala** da erabiltzen duten bakarra, herriko hizkera. Egia da aztertutako testuingurua —Whatsappeko eta Instagrameko elkarrizketak— erabilera informalean kokatzen dela, eta ulertzekoa dela hizkuntza estandarren erabilera txikia izatea; edonola ere, berbalaguna aldatzeko ere ez du eragin erregistro aldaketarik elkarrizketetan. Alegia, nerabeek antzeko erregistroa erabiltzen dute lagunarteko elkarrizketetan zein familiakoetan.

Euskara batua ez erabiltzeko ere ez du esan nahi estandarren **eraginik** ageri ez denik elkarrizketetan. Lexikoari dagokionez, dezente dira euskara estandarretik hartutako aldaerak, nagusiki hezkuntzaren bidez jasotakoak (*azarun, irailin, itxarote zerrenda...*).

Halaber, bestelako funtzio bat ere aitortzen diote Ondarroako nerabeek euskara batuari: **umorera** **eta ironiarako tresna** bezala erabiltzen dute, herriko hizkeran ari direla esaldi solteak estandarrean txertatuta.

Bestetik, elkarrizketa batean ikasle batek berriaz erabili du euskara estandarra **komunikazioa errazteko**, berbalaguna euskaldunberria zelako.

“Belaunaldi berrien euskara gero eta eklektikoagoa da, eta ahozko harremanetan sistematikoki nahasten dira euskara batua, erdarakadak, euskalkia edo modalitate propioa”, azaltzen du Ibarak, eta horren zantzu batzuk ere ageri dira laginean, nahiz eta euskalkiaren eta Ondarroako hizkeraren presentzia oso indartsua izan.

→ *Idazkera: araua araurik eza da*

Lehenago esan bezala, ahozotasuna eta idatzizkoa gurutzatzen diren puntua da sare sozialetako komunikazioaren eremua. Eta eremu horretan idazkeraren eta ortografiaren arau nagusia araurik eza da. Ekonomia (erosotasuna) eta ulegarritasuna dira gidalerro nagusiak.

Puntuazioa minimalista da, eta ia ez da ageri. Normalean, esaldiak bereizteko mezu bereziak idazten dituzte, eta puntuazio marka erabilienak galdera ikurra eta harridura ikurra dira. Halaber, esandakoaren adierazkortasuna nabarmentzeko maiuskulak ere erabiltzen dituzte; esaldi hasieretan eta izen propioetan, ostera, ez dituzte beti erabiltzen letra larriak.

Idazkeran ahalik eta gehien laburtzeko joera argia dago, eta elkarrizketak laburdurez beteta daude. Batzuek hieroglifiko itxura ere hartzen dute, Cyristalek ohartarazi izan duen bezala. Komunikazioa, erosotasuna eta jolaserako grina dira faktore nagusiak akronimoak sortzerakoan ere. Aipatzekoa da, gainera, nahasten dituzten hizkuntza guztietan sortzen dituztela akronimoak —euskaraz, gaztelaniaz

14 Berria, *Hizkuntzen arrakasta, irautea* (08-09-13)

eta ingelesez—, nahiz eta gaztelaniazkoak gehienetan euskal grafiara ekartzen dituzten (*sk*, *kb*, *bl...*).

Ortografiari dagokionez, zailtasun handia daukate *s* eta *z* ondo bereizteko (*Gausa bat*), *h* ondo erabiltzeko (*Utzas*), eta *ll* erabiltzen dute *y* eta *ndd* ordezkatzeko (*Lla lla*; *Ezinllot*). Hau da, ahozkatzerakoan bereizten ez dituzten soinuak idazterakoan, ez daukate argi zein den idazkera estandarreko araua.

Azkenik, bitxia da elkarrizketa askotan agertu den joera: sarri ez dute erabiltzen toki deklinabiderik, ezta orduak esaterakoan ere: *-Ze **ord** zuze **pot**?*

8. BIBLIOGRAFIA

- ALBIZU, ENERITZ eta ARANA, GOIZANE. *Bermeo eta Ondarroa, hizkuntza garapenean eragriten duten faktoreak*, (2017), UEMA.
- APPLE, R., MUYSKEN, P., *Bilinguismo y contacto de lenguas* (1996) Ariel Lingüística.
- CRYSTAL, DAVID. *El lenguaje e Internet*, (2002), Cambirdge University Press.
- CRYSTAL, DAVID. *Txtng. The gr8 db8*, (2008), Oxford Unversity Press.
- CRYSTAL, DAVID. *Internet linguistics*, (2011), Routledge.
- Euskadiko gazteak sare sozialetan*, Gazteen Euskal Behatokia (2016ko urria)
- IBARRA MURILLO, ORREAGA. *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*, (2011), Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- IBARRA MURILLO, ORREAGA. *El euskera de ayer y de hoy: variación y contacto*, (2018), Pamiela.
- M.P.A., *Hizkuntzen arrakasta, irautea* (08-09-13), Berria.
- THOMASON, S. *Language contact* (2001), Edinbug University Press.

9. ERANSKINAK

Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan

BAIMENA

Nik,
izen abizenekin izenpetzen dudanak, adierazten dut onartzen dudala EHUko HIZNETen¹ 'Hizkuntza ohiturak sare sozialetan' izeneko ikerketa soziolinguistikoa parte hartzea.

Jon Fernandez San Martin izango da ikertzailea, Kike Amonarriz Gorriaren tutoretzapean.

Proiektuaren helburua da Ondarroako BHI Institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleen sare sozialetako hizkuntza ohiturak aztertzea.

Sare sozialetako testuak nik neuk aukeratu ditut eta neure borondatez jarri ditut ikerlarien eskura, eta baimena ematen dut ikerketari buruzko eztabaida saioa grabatzeko. Edozelan ere, niri dagozkidan testuak eta grabaketak modu anonimoan jasoko dira eta erabiliko dira, eta testuetan eta grabaketetan hirugarrenei egindako erreferentziak ezabatu edo anonimo bihurtuko dira.

Ikerketa hau eta bertan bildutako datuak helburu zientifikoak edo pedagogikoak dituzten hedabideetan (paperezkoak, elektronikoak edo Internetekoak) publikatu ahalko dira, betiere datuen anonimotasuna mantenduz.

Onespen honek ez du ezertan arintzen ikerketaren arduradunei dagokien erantzukizuna. Ez diet uko egiten legeak² bermatzen dizkidan eskubideei.

.....(e)n,(e)an

Jon Fernandez San Martin
Ikertzailearen izena eta sinadura

Parte hartzailearen sinadura

1 HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa, EHUko berezko titulua. Asteasuain, 14 (20170 Usurbil) Gipuzkoa
Tlf: +34 943 212 369 // e-mail: hiznet@asmoz.org

2 DBEO Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (http://www.avpd.euskadi.eus/contenidos/informacion/20161118/eu_def/adjuntos/rgpd_2016R0679-es-eu.pdf), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da. 2016ko maiatzean argitaratu zen, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahitaez ezarri beharrekoa da, eta zuzenean aplikatu beharreko araua da. 2018ko maiatzetik aurrera DBEOk ordezkatu egingo ditu Datuak Babesteko Lege Organikoa (DBLO) eta lege organikoa garatzen duen 1720/2007 Errege Dekretua.

Soslai soziolinguistikoa eta teknologikoa

(1. fitxa)

1. Ikaslearen identifikazio zenbakia: 1

2. Adina:

3. Generoa:

Mutila

Neska

Ez binarioa

4. Posta elektronikoa:

5. Ama hizkuntza:

Jarri X bat zure ama hizkuntzari dagokion laukitxoan. Zure ama hizkuntza euskara eta gaztelera ez beste hizkuntza bat bada, zehaztu zein hizkuntza den.

Euskara Gaztelera Biak Beste hizkuntza bat/batzuk
(Zehaztu).....

6. Etxean zein hizkuntza erabiltzen duzue gehien?

Euskara Gaztelera Biak berdintsu Beste hizkuntza bat/batzuk
(Zehaztu).....

7. Institutuan ikaskideekin zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien?

Euskara Gaztelera Biak berdintsu Beste hizkuntza bat/batzuk
(Zehaztu).....

8. Kalean, kuadrillan, zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien?

Euskara Gaztelera Biak berdintsu Beste hizkuntza bat/batzuk
(Zehaztu).....

9. Zer sare sozial erabiltzen dituzu, eta nagusiki zein hizkuntzatan? (Besteren bat bada zehaztu)

	ERABILI			HIZKUNTZA			
	Bai	Gutxi	Ez	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste
Whatsapp							
Instagram							
Facebook							
.....							

Elkarrizketaren testuingurua

(2. fitxa)

1. Ikaslearen identifikazio zenbakia:

2. Koadroa: Hautatu A edo B aukera, elkarrizketa motaren arabera. Erantzun batzuetan nahikoa da X bat jartzearekin, beste erantzun batzuetan idatzi zenbakia, generoa, hizkuntza edo herria.

A AUKERA: Bi pertsonaren arteko elkarrizketa	B AUKERA: Taldeko elkarrizketa
2.a. Berbalagunaren adina:	2.b. Taldekideen adin tartea:
3.a. Berbalagunaren generoa:	3.b. Taldekideen generoa:
Neska <input type="checkbox"/> Ez binarioa <input type="checkbox"/> Mutila <input type="checkbox"/>	-Denetik <input type="checkbox"/> -Genero bakarra. Zein?:
4.a. Berbalagunaren hizkuntza gaitasuna:	4.b. Taldekideen arteko ohiko hizkuntza:
- Euskalduna <input type="checkbox"/> - Euskaraz ez da ondo moldatzen <input type="checkbox"/>	-Euskara <input type="checkbox"/> -Besterik. Zein?: <input type="checkbox"/>
5.a. Berbalagunarekin daukazu harreman mota:	5.b. Taldearen harreman mota:
- Lagunartekoa <input type="checkbox"/> - Ikaskidea <input type="checkbox"/> - Familiakoa <input type="checkbox"/> - Bikotekidea <input type="checkbox"/> - Besterik <input type="checkbox"/>	- Lagunartekoa <input type="checkbox"/> - Ikaskideak <input type="checkbox"/> - Familiakoa <input type="checkbox"/> - Besterik <input type="checkbox"/>
6.a. Berbalagunaren bizitokia:	6.b. Taldekideen bizitokia:
- Ondarroa <input type="checkbox"/> - Eskualdea <input type="checkbox"/> - Eskualdetik kanpo Non? <input type="checkbox"/>	- Denak ondarrutarrak <input type="checkbox"/> - Denak eskualdekoak <input type="checkbox"/> - Kanpoko batzuk. Nongoak? <input type="checkbox"/> - Gehienak kanpokoak. Nongoak? <input type="checkbox"/>

Ikasleak	Eguna	Sare soziala	Elkarrizketa zbk	Transkripzioa	Norekin	Adina	Generoa	Ohiko hizkuntza	Harreman mota	Bizitokia
1	Eguaztena, abenduak 29	Whatsapp	1	-Aupa neskek, animako ziñen Saharako sudaderak erostea? -[irudia] -Nahi dabenak diru ariña ekarribirau / -Nik baakat / -Ni hartzea nu / -Ze eskarixe gero engora / -Neupebai / -neuk be hartukot / -Neuk be bai / -Neuk be nahiro / -Neuk be bai / -neuk be bai / -Bixar ezingeinke ureta jun likido bat duzelako botatea lurrin -Pasu eongora baine eztakiau nundik -Asike bixar lehorreku nahi dozuen ordun / -Bañe ureta ezgixuzen baixakun? / -Bai bañe eguenin be juteko geatuzin albenak maiteaz -Total baixakun 6:30 ta yasta / -A bale [emotikonoa]	Taldea	14-26	Neskak	Euskara	Besterik	Eskualdea
1	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	2	-bueno me vais informando / -Creo que vamos a aquilar un autobus de 19 personas o / -ah que guayyy / -comp divas / -bamos en una limusina / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] / -[bamos en una limusina] si porfa	Taldea	16	Neskak	Gaztelera	Lagunartekoa	Batzuk kanpokoak: Leon
1	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	3	-neskak gero ze engot -uli plantxa -ala ondula / -nitzat ondul -a / -[emotikonoa] / -Tintxe / -zerda hori? / -Tintxa / -rosi neuan pentsaten -metxa berdikin / -Yaas / -BAAI / -lol /// -ontxe esnatuna siestatik / -[emotikonoa]	Taldea	16	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
1	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	4	-Maite baja / -Plis /// -Ai -Atzo ordurako ya lo neuan [emotikonoa] / -Oso txarto / -Ze eonziñan denpora guztin de sujetavelas) / -Bai / -Kotxaue / -Bai / -[audioa] / -Eskuzak / -Eztaa / -Baire / -Bueno dutxatea nu - [emotikonoa] / -[emotikonoa] / -Nun za /// - Mutrikun	Bakarka	15	Mutila	Euskara	Bikotekidea	Ondarroa

1	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	5	-a qué hora vamos a volver? -y que vamos a cenar [emotikonoa] -ah, y cuánto tengo que pagar /-[a qué hora vamos a volver?] a las doce y media el bus de vuelta -9:45 el de ir -[y que vamos a cenar [emotikonoa]] es una pizzeria -y hay pastas y así - [ah, y cuánto tengo que pagar] bastante /-bastante cuando? / -puff -esk no se cuanto seta el bus -pero mas de cien ida y buelta entre 19 -mas la pizza / -ah bueno tmpc tanto /-[emotikonoak] / -He quedado en mi casa con Maite a las 7 (para hacer preparativos) si alguien quiere que benga -y si no me hecho una siesta / -preparativos de qué -yo voy a las 9 y pico a casa de Maite a plancharme el pelo / -pues eso preparatuvos. de cena / -hacer el pelo y eso / - [irudia] / -Wow / -sexy / -A las 9:45 el la parada de itxasaurre no? -Cuanto dinero vais a llebar? / -30 -40 / -Bale -Maite bienes? / -sisi / -estais ready? / -No / -maite toca el timbre / -Maite y yo estamos en la parada -Venid -Ya / -somos puntuales / -maite bagiz -[irudia]	Taldea	16	Neskak	Gaztelera	Lagunartekoa	Batzuk kanpokoak: Leon
1	Zapatua, abenduak 22	Instagram	6	- [emotikonoa] -A ariña / -Jaja -[emotikonoa] /// - Noiz bajako za? / -Mutrikun nu afaltB1zea -Eztai ze ordutan jungoazen ondarrure / -Bale	Bakarka	15	Mutila	Euskara	Bikotekidea	Ondarroa
1	Zapatua, abenduak 22	Instagram	7	-[irudia] -Ai ama / -Omg / -[emotikonoa] -Entrenu zelaik? / -Normal / -A ondo ordun -Mutrikuarrsk jundi? / -Bai / -[irudia] -me encanta / - [emotikonoa] / -lota nu neu be – Ondo loo [emotikonoa] / -[emotikonoa] / -[emotikonoa] / - [irudia] / -Motibata bera / -[irudia] / -[irudia] / -Wow belarritzakuk -[emotikonoa] -super wapa za [emotikonoa] -[emotikonoa] / -nesakk / -ze - Basatoze? /// -bai ontxe nun -nun zaze / -[irudia]	Taldea	16	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
2	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	1	-Historiakuk, iñok baaki texto iruzkiñak etxen? [emotikonoa] -Ze soratzen hasitxe na / -Nik ondo ez / -Nik ondion eztot kuadernoi irai / -neupez / Nik berak emozkun eskemiai pausuk segiuten naa etxen bñ eztai indo o ze / -Nik eztai / -Neuk be eztot irai / -Ordun zelán hasi za zoratzen / -Ba agobixaten na ze eztakat gogo putaik, eztai etxen eta bixar lelengoko ordun dakau osea imagina zelako paraderu akaten / -Loko / -Ni bixar goxin nu ikastea / -Neu be bai	Taldea	16	Denetik	Euskara	Ikaskideak	Eskualdea

3	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	1	-Rt / -[audioa] / -Ni baixakun ezin na jun entrenu da afaxe akat / -Ze ordu? / -[audioa] -[audioa] / -[audioa] / -Maitek ia zeatxik dan motibata audixukin / -Ze ordutan ze matata aiatena [emotikonoa] / -Ze patata -Txo errespetu / [emotikonoa] / -[lotura] / -Potruk na lagaten / -Ikusitxe [emotikonoa] / -Pañueluk parte berdik dauke eta emotendau zuluk dakar ela burun / -Kriston onara [emotikonoa] / -[Ikusitxe] Neupebai [emotikonoa] / -Niri ya eztozta emoten grazirik -Moskea etxena / -Lelengoko bideu grazixi emotetzana /// -Zoixonakkk	Taldea	16-17	Denetik	Euskara	Lagunartekoa	Eskualdea
3	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	2	-Nunza jarritxe -Ontxe na etxeko asentzorin / - Atin pareko filan / -Zineko par na / - Ok / -Eon al loro mobillai ze ezta plana ridikulu etxi / - Maite mesedez [emotikonoa] / -Sartuaz batea na /// -Litruk noiz erosibirou? / -Ba laste berez ... / - Ni ontxe nui kal / -On? - Ni ondione enu...	Bakarka	16	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
3	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	3	- Mertz / -Testuingurun ze ipini bire? / -Royo emondouena / - Ondorixo ekonomikuk eta? / -Segun zerreatxitun bixkat esplika ein emondouenaz eta / - Eta ondorixutan? / -Horretxek testuk ero mapik ero ekarri ban ondorixuk / - Eta guk hori zln dakiau ba? / -Normalin dakiauen zeeze sartukorai / - Balew /// -Etxin dakazu atzo lagatzazun gazteko fitxak?	Bakarka	16	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
3	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	4	-Noiz zuze bajatea? / -Laste / -Okk eske ni ontxe alyzana siestatik ondiokan / -Jajaja / -Nun zaueze?? / -Lokalin / -Ontxe laster jungo na / -Autobuse ze ordu artukozue? / -Nox guz poteoa? / -[Nox guz poteoa?] Maite copiona bebe [emotikonoa] / -Eztot entzun -Guapa / -8 retan ero? / -Baii ez? / -Baai -Ni maiten house na / -[audioa] / -Laga beiko ati iratxe meseee -O intzirrikatun ero / -[audioa] / -[audioa] -[audioa] / -Gure taxisti beste taxistiaz da berbetan -Eurak engorabela bakotxak 2 ero 3 uelta -Asike perfekt -Eta bueltako be komoke bao -Baii / -Maiten amak esandau berak be emongorabela beste buelta bat / -Zuek ordun nik deitxutzatenai ordun ezetz esangotzat? / -Esk iual zuk berba eizune honetxek berba eindabena ra -Eztai -Segun -Zemateaz einddou berba etorteko? -15€ kobrazku -[irudia] / -[irudia] / -Jun eskatzen ze 23.00 koziñi itxitxen da	Taldea	16-17	Denetik	Euskara	Lagunartekoa	Eskualdea

3	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	5	-Gero ze ordu / -When u want -Bñ leldn siesti enbirot / -Bale [emotikonoa] -Zazpirak kal? / - Ariña ez? / -Noiz?? / -6ra ero? / -Seitxeri ondo??? / -Bai -Monjetako plazan gelditxugeinke? Esk ni lelen aumanetik pasabina / -Balee -Abiza monjetan zazenin / - Ontxe urtendor kamiñaldetik -Upps bixkat berandu -Ze berooi / -[emotikonoa] -Beru raa? / -Bai -Urten balk / -Yas / -Mikel baja / -Banator -[irudia]	Bakarka	16	Mutila	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
3	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	6	-Amata engot / -Ni barrun na /// -Maite ze serixe esaztazun ikusteko? / -Elite / -Megadeden bara? / -Bai / -Maite asesino eta? Ni hori enu ikustea / -[emotikonoak] /// -Maite ezatoz kalea?? / -On berandure / -Ezta	Bakarka	17	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
3	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	7	-Ni ondione enu... -[On?]-Bai / -Esk ondion preparateko na...ta mait be bai... / -Bueno ondion denpori akau / -Ahal bazu 2kas o pilla guai, tq berandua baguz ni te mait gin eta beste 2kas pillageinke ero... -Eztai bñ ondion bara denpori / -Esk ni on lok na / -Gauzi ya poteure juten bazaze ariña ba beulat etxi ederra palu / -Ya -Esk ze ordutan guz pot? / -Ba eztaipe...peñik a ber que dice ero... / -4 kato gaz bakarrik lok, ordun supongo berandu jungoazela / -Zeuntzuk zaze / -Maite maite1 maite2 maite3 maite4 maite5 / Ze ord zuze pot? / -8rak aldea ero / -Laga lok beiko ati iratxe mese	Bakarka	16	Mutila	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
3	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	8	-[irudia]-Guapo / -[emotikonoak] / -[emotikonoak] / -Noiz hasten da Mikel?? / -Ontxe / -[emotikonoa] / -[irudia] -Deskojona eina	Taldea	16-62	Denetik	Euskara	Familia	Batzuk kanpokoak
4	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	1	-Ondo zaz?? -Emotezta berandutxu aiako nazela,,,kontsultak oso atzeatute duz / -[irudia] / -Ya,,,lehen entzun dot radixun	Bakarka	44	Neska	Euskara	Familia	Ondarroa

4	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	2	-baaguzz yaaaa / -Buaaaaaaa -Gexeeeeiiii / -Ontxe nu erostea / -Ei datorren urteko azarun berri txarrakeko azkan kontzertura inor baru / -Maitek da nik pentsa genun -Nik gabonetan diru emoteztenin pillakot sarreri / -Nik gaur albarot mait naizu pillati? -Keba keba lasai / -Iñor bixar baru jazza ikustea? / -[irudia]-Buaaa [emotikonoa] / -[Nik gabonetan diru emoteztenin pillakot sarreri]-Neuk be bai / -[Iñor bixar baru jazza ikustea?]-Paa einbire? / -[Paa einbire?]-Supongo.. / -Ordun ez -[emotikonoak] / Neeskk -Iñok bazerritxar gonaik laateko baxakurako? / -Nik traje guzti akat libre -Bñ eztai nun ostiran / -Nik ez / -Listo lorturoot	Taldea	16-18	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
4	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	3	-[...] eizeinke eta afaltzeko lentejak eixuaz nahibazu pure etxeko -Mandatuk Mikelek eta Mikelek be eileikez / -[emotikonoak] /// -Zure praka batzuk hartutxuaz / -Ok -Bixaldu argazki bat ez? / -Atzanin ixebez / -Handixei eukikozuz bañe nahizuz neure botak?? [audioa] / -Ez lasai	Bakarka	44	Neska	Euskara	Familia	Ondarroa
4	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	4	-Azkenetxea juteko ze ordutan dakau autobuse eta nun / -nidea baine niatxik 19.00 19.30 poteuree / -Usteot 21:00ak zaldupen dakauela buse / -19:00etan poteure? / -Niatxik 19:30 alde ero / -Bale -Ze ordu herrikuk?	Taldea	16-18	Neskak			
5	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	1	-[emotikonoak] / -[emotikonoak] / -Ezga eon pilobat denporan / -Ondala gutxi eziñeten geratubier 3edo? / -Baai baine ezginan eon atzanin -Ezin ixaneban -Hirrengo batenn / -Joe – Jajaja -Eske esazozzte zoze33 / -Baai jejeje -Baine sinmas	Bakarka	16	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Kanpokoak: Elorrio
5	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	2	-Ni gaur oñez nu / -okaai neube zeuaz jungona / -Oki abisa bajateko / -aldatzinnna / -Berutznu /// -Historian nik lelengoko hirurak da zuk beste hirurak? / -bai nahizune -ena etxiin gero ikasikott / -Okii	Bakarka	16	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
5	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	3	-Amona eta notaixa junbirdi 3retan eta ezti eongo etxin -Bazkaxe einje dakazu. Goltzak – Giltzak? -Atzo deitzeko esatzen aiertei bañeere -Etxea bazuz. Lentejak daz neberan eta hanburgesi / -okai etxe nator -hori jakitxea enitxan yraro guztikin goxin... /// -lol surprice / -Ehhh	Bakarka	50	Neska	Euskara	Familia	Ondarroa

5	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	5	-Bua neskak lokalin kriston tufu bañe flipateku / -Deke / -Eztakiau / -Kalefasiñoi o bistute euan? / -Ez / -Ba zozeñek zoze ezpagan ein o.. / -Atzo ni junitxanin be ba euan ze ni bizkotxuntzako mantequilli jun nitxan etxe a eta atzanin txabolan ein neban	Taldea	16-18	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
5	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	6	-Bost terdi eroo / -Ni 6ak pasatanu / -Terdirak / -Neupe naxarot berandua / -Donostire ezbanu neu be etorriko na [emotikonoa] / -Ni te anaxi ontxe guz / -Ni enu azkaanin / -Ni 6 rak 6:30 alde jungo na	Taldea	16-24	Denetik	Euskara	Lagunartekoa	Batzuk kanpokoak: Kolonbia
5	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	8	-Neeu nu ontxe zeozeñ bara / -inor ezta -ni etxea etorrina / -Ni laste jungona -Zeozen bajatea baru / -Eske ezkatat giltzik -Ba mai [Maiteren diminutiboa] abisa / -Balee / -Ni ontxe nu / -Lokalin na	Taldea	16-18	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
5	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	9	-eskee pfff arazu -ba eingeinke batrn bilboa zina eta -da beste batem zeure pisure da oinez skizoa / -Baalee ahaldaa ein / -Bañe ondod pentsabire ze egun -Ze bastante egun konplikauk di -Bañe eskizo gabon osuk eongora iratxe? / -[Bañe eskizo gabon osuk eongora iratxe?] nidea / -Ba hoxe jakinbikorra / -baaii -beatukou						
6	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	1	-[irudia] / -Gastazo [emotikonoa] / -Wtf / -Dek / -Eroze etxen / -Zerdi geure [Irakurrezina: estalita] -Mait zelako zapatak dakazu jantsitxe? / -[audioa] / -Esk nik estai zelakuk jantzi / -[irudia] / -[Irakurrezina: estalita] -Da aparte, baltzaz hobeto / -[Amak honetxeaz juteko, bañe sostenik baik enu] Mait ainkak kontrola [emotikonoak] / -Nik zap sin mas.nu / -Normal / -[Mait ainkak kontrola [emotikonoak]] [emotikonoak] / -Benetan be / -Joo bale bi horrekin hil etxena / -[audioa] / -Maitre ez flip / -[irudia] Ta zap haoan??	Taldea	16	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
6	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	2	-Ze ordu zuze entrenatea? / -5terdi / -Bale neu bebi / -Gaur zeintzuk guz atzanin / -Ni bai / -ni ez / -Ni ontxe nu / -Hamen ga / -Neubez	Taldea	16	Neskak	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa

6	Eguaztena, abenduak 19	Whatsapp	4	- Bai?? Bañe ondo ez?? / -sinmaas -batzutan pff / -atzo agobixau nitzan.. / - Zeba / -sinmaas tio -ya erretzia lagatzenoi ta iual orretxio ere bada [emotikonoak] / - Ixaleike bañe eztaiztai / -sinmaas -gañea oango astian berriz domekan partidua / -beti domekan jokatzu tio -danok potruak arte goz [emotikonoa] -athletixa serixua / -[segun ekipua ta entrenadorea] A ya... nik pentsatenevan bañe hori ezabela eurak entrenadoren adosten sinoke roio gorauatik etorrela, entrenadore fisiku o -[athletixa serixua] Zeuen beste / -keba -athletixa geixo -benetan e -ni bixetan eonai -athletixan eotiak askoz askoz meritxo geixo dka -eibar mierda bat da	Bakarka	16	Mutila	Euskara	Lagunartekoa	Eskualdea
6	Eguaztena, abenduak 19	Instagram	5	-6!?!?! -la errezeoi -DBH4 / - Flipa – Zemar urte auke dnalik / -Laun horrek portugalea jun zin ikas2n eta axe laun / - Eta hortik?? Laostia / -Hori esk benetan eh lisboan da hori argazkixe eta / -Eurak entera baik atutzen argazkixe / - Flipa / -Ikas2n liazin lelegoko bidar ezpazan 2. / - Da hor ezta eon adarrik??? / -Ba eztaiz Mait beti be adarrik ezta zetan eon / -[irudia] - Ez bñ nik horrekansik erose entzundot -Justo eurakatzik -Royo asako bidar laarabela eta / -Kb ns -Eukiben laata bñ ns -Betri raz batea atzanin / - B ostia fuerti 6 urte... asako ra -Royo aurrekun beran ama ebillen maitei esaten, geuri tokaazku kinieli.. eta ebizen berbetan parejan txarto pasatiatzik alabak	Bakarka	16	Neska	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
6	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	6	-Ke mareo / - Maitemozkor / -Super mozkor politxe atrapanaban / - Super kiute ez? -[irudia] Erregalu gabeko / - Hainka azpizak... eskuk makillateko txungo / -Ontxe esazu -Neure etx makilkateq laun [emotikonoa] -Mait al natral gaur / -A lo remo / - Ziek gero poteure guz....ez / -Ez nahibazu etxin -Geatukona / -Nox guz bñ / -7/7:30 -Zeu? / - 7:30 minim / -Ze berandua? / - Ez lastw iual listo na bñ.sty / -Nik jasti faltarat bñ mait ontxe esnature eta pillabirou / - Eske maiteeta neube espabilakoa / -JAJAJAJA / -Zuek hilde na ezindot bixitxiaz -Eta atzoko praka baltzak sekadoran daz zain eon bina	Talde	16	Denetik	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa

6	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	7	-Ni eta maite zer / -Zuk aurrezku dantza primeran eta maite jaialdian kantaten. Famauk [emotikonoak] / -Aurrezkure ori ala / -Ba ez? / -Nik eztai -Agur -Eta jan jogur / -Mikel. Sei kalendaxo emoztazu bost emon biharrin. 1Euro bat sor [emotikonoa] / -ez, zeuk artuzu [emotikonoa] / -Hola danoi. Edinburgoko bueluk ordaindute daz. Bakotxe 110euro. Aurten krisi gogorri na eta gabon zahar egunin ekarri diru edo kontun sartu hile hasieran kobrakozte eta [emotikonoak] / -Ok. Nik 31-an ingresakotzut]	Taldea	9 – 55	Denetik	Euskara	Familia	
6	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	9	-eztezunai zea mays ikusi? -nik eztakitx ze im - iual ateakonai bña porrito batzuk ta ya / -[- eztezunai zea mays ikusi?] Baii aber gustatengazta e -Bañe sarreraik be eztakau / -ezz? -orduan ahaztu ee [emotikonoa] -bueno eztakitx iual lortukozue - parrandia eongoda bña ondarrun geixo -ze mutrikun showa futbolekuak handikuak montatzeue -ta eztuaz ateatzea ze bixar partidua dke -gaur bazaken bai egongozala.. / - Eske esatetzet nik kuadrillakuai bañe jamon putaik eztozte etxen / -sarreria lortzenbazue yasta -gaztetxian anbientia eongoda -ta gero tabernetan ta ebai / - Ya ya -Bañe ueno -Ikusikou ze engouen / -ni iual tira o jungonai ze mikel do kamarero -gaztetxea jungonitzan bña sarrerek.. / - A ondoo ondo -Ya... / -sarreraik ezpadkzue ez etorri -bueno ni enitzan etorriko [emotikonoa] / - Ya... eske nik esandot, jutenbana 1:30etan.ueltan natorrela / -ni ere 1ak o jungonai etxea / - Ondo ondo, ni ondarrure etorri da farra / - etorri nere etxea lota -[emotikonoak] / - Bai oixe pentsaten na [emotikonoa] / -eztezunai? / - Enu mutrikure / -ezz? -ondoo indezue	Bakarka	16	Mutilla	Euskara	Lagunartekoa	Eskualdea

6	Zapatua, abenduak 22	Whatsapp	10	<p>-Ongo astin eotea guz? -Ezpazunahi esan ze eztozta bñ ignora ez ein / -[Ongo astin eotea guz?] / -Astebukaeran / -Eztakat gogo askoik egixe ezna / -Bale – Imaginateneban -Bñ esan lelelengokutik ez eon 10 ordu ignoraten / -Relaja / -Ze relaja -Ezpanabil txarrea / -Nahizu geatu? / -Zeuk ezpozunahi b ez -Ezga eongo eta zu inkomodo eon ez? -Bñ snms stay / -Bai geatukoa -[Ezga eongo eta zu inkomodo eon ez?] Ez lasai -Bakarrik lokaleko giltzak topabitxuaz / -[Bai geatukoa] Aber bañe ezpazu nahi?? -[Bakarrik lokaleko giltzak topabitxuaz] Zetako / -Bai bai -Eske idatzitazunin oian neuan botata / -Bale bale -Gaur bañe?? -Mikel bateixi akat amaitzen -Erantzun mese / -[Gaur bañe??] Bai -Zure lokala libre ra / ...eske hon iñor ezta bañe ezta berta guzen o ez -Zeuri ezta libre? / -[Zeuri ezta libre?] Eztakat giltzik -Mikelei eskatukotzat / -Bale -Perfekto -Nox / -Gadetzat / -E? / -Galdetutzat / -Bañe nox / -Ontxe -Watsapetik -Tabernan na -Ueno bertarutz nu / -Noa noa -Maitee / -Taberna / -A bale -Pentzarto lokalerutz / -Ez ez -Mikel amaitzeb da batexi -Euneko lau rakat / -Ze ordu geatukoa? / -Zeuk esan / -22:45 ero? / -22:45?! -Etxea junbikona da gero uelta -Ariña -Ontxe eztoztazu esan ba / -[Ontxe] Ontxe idatzikotzat ela / -Nunza? -Ei / -Etxin / -Ontxe nu arutz / -Abisa txistenea aiaten zazenin -Nunza / -Bajas / -Banator</p>	Bakarka		Mutila	Euskara	Lagunartekoa	Ondarroa
6	Zapatua, abenduak 22	Instagram	11	<p>-Eztai -Bañe sustata na -Modo hipocondriaca / -Ba trankiil [emotikonoak] -Eztot uste ixexangoraniik / -Interneten eta testak na etxen -Ia zer dan -[irudia] / -[emotikonoa] -Entrenu ontxe ez? / -Cara sexy [emotikonoak] / -Ezinllot ikusi / -[irudia]</p>	Taldea	16				
